

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Ez IRA, ez eta GRAPO ere

IÑAKI ALTUNA > 11

KOADERNOA

Lau apunte armagabetzeaz

LAURA MINTEGI > 21

2017ko apirilaren 22a | XI. urtea • 514. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



GAZARI ETORKIZUNA ITOTZEN

ISRAELGO LEHEN MINISTRO KARGURA IRITSI NAHI DUEN YISRAEL KATZ MINISTROAK UHARTE ARTIFIZIAL BAT ERAIKI NAHI DU GAZA HIRIAREN PAREAN. ZERTARAKO? ISRAELEN SEGURTASUNA HOBETZEKO ETA GAZAN

EZER ALDA EZ DADIN; BLOKEOAK ITOTA SEGI DEZAN. > 4 Mohammed ABED | AFP

**Israelgo ministro batek uharte
artifizial bat eraiki nahi du Gaza
hiriaren parean** 04

**Mocoan basoari eutsi ziotenek
zuhaitzen babesa jaso dute** 08

**Errenteriako Jantzien Zentroa,
Iraultza dantza taldearen eskutik** 12

**EAEko eskola-jantokien gatazka
eta Urduñako Udal Sukaldea** 17

**E.lkarritzeta: Xabier Zubialde,
energian aditua** 22

**Elikatzeagatik kutsatzera eta
kutsatuak izatera kondenatuak?** 27

**In fraganti: Joxe Agustin Iriondo
«Txusta»** 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



8



12



17



SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Beti dirudi ezinezkoa
 10 **Unai Fernandez de Betoño:** Azpiegiturak eta nazioa
 11 **Iñaki Altuna:** Ez IRA, ez eta GRAPO ere
 16 **Ainara Azpiazu AXPI**
 20 **Arantxa Urbe:** Ikasi ez da eskolan soilik egiten
 21 **Laura Mintegi:** Lau apunte armagabetzeaz
 26 **Mirari Martiarena:** Klik
 26 **Koldo Sagasti:** Palestinako presoak greban
 30 **Maria Gonzalez Gorosarri:** Egia ofizial berria



22



28

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Beti dirudi ezinezkoa

Nire herrian lehenik kartzelara joaten gara eta ondoren presidente bilakatzen gara», esan zuen behin Nelson Mandelak. Eta badira munduan zehar presidente bilakatu aurretik kartzelatik pasatutako hainbat lagun. Talde txikia dela esan dezakegu, baina historian, beren herrietan eta munduan utzi duten ondarea, handia. Burura datozkit, besteak beste, Nelson Mandela bera, Hugo Chavez, Fidel Castro, Pepe Mujica eta duela gutxi joan zaigun Martin McGuinness.

Askatasuna, berdintasuna eta beren herrien zein herritarren eskubideak defendatu zituzten/dituzte beti, eta bide luze horretan denetarik ezagutzea eta egitea egokitu zaie; beti ere helburu politiko horiek lortzeko bidean unean uneko taktika politiko eraginkorrena aukeratuz, “E eguna” ez dela sekula iritsiko jakinik, eta ondorioz borroka amaigabea dela ulertuz. Ikuspegi horretatik belaunaldi bakoitzaren bizi helburu politiko nagusia bikoitza dela ondoriozta dezakegu; bate-tik, hurrengo belaunaldiari egoera eta baldintza hobekak uztea eta, bestetik, belaunaldi berri horrek lanean jarraituko duela ziurtatzea. Hau da, borroka grina amatatuko ez dela ziurtatzea, soka eten ez dadin lortzea.

Borroka eta matxinada armatua; oposizio lan sutua; hasieran gutxi batzuk izatea eta atzean egotea; etsaiaren kontraesanak agerian uztea; norberaren proiektua ezagutaraztea; denbora-urteak aurrera; kartzela; exilioa; tortura; denbora-urteak aurrera; askatasuna; herriratzea; borrokaren egokitzapena; masa borroka; borroka elektorala; gutxi batzuk izatetik gehiengoan babesa lortzera pasatzea; oposiziotik gobernura; norberaren barne kontraesanen kudeaketa; kudeaketa; instituzio lana; denbora-urteak aurrera... Baina beti norberaren hasierako helburuak lortzeko grinaz eta konbentzimendu sendoaz.

Erraza edota laburra izango dela uste duena erratua dago. Noizbait helburu guztiak lortu eta gozatzeko tenorea izango duela uste duena ere erratua dago. Helmugarik gabeko bidean, bidea bera da garrantzitsuena. Hartara, garenarekin eta egiten dugunarekin gozatzen

ikasi beharra daukagu. Finean, Pepe Mujicak maiz esaten duen bezala, pertsonen helburu nagusia zoriontsu izatea baita. Esaldi sinplea dirudien arren, ez da horren erraza.

Borrokan jarduteak eta gizarte justuago baten alde lan egiteak zoriontasuna dakarrela sinesten duten milaka pertsona daude gure inguruan. Gure herria –bartzuek eta besteek esaten dutenaren kontra– bizirik dagoen herria baita, bizirik dagoen eta aurrera egiteko borondatea duen herria.

Badira, era berean, borroka bide luze horretan presidente izatera iritsi gabe eredu ditugun pertsona eta militante asko, bidean geratutako beste asko, eta, oraindik jaio gabe, etorriko diren guztiak. Gure herriko egoera eta azken gertakariei begiratuz gero, argi dago preso guztien etxeratzea lortzeko garaia iritsi zai-

Erraza edota laburra izango dela uste duena erratua dago. Noizbait helburu guztiak lortu eta gozatzeko tenorea izango duela uste duena ere erratua dago. Helmugarik gabeko bidean, bidea bera da garrantzitsuena

gula, gure ondoan behar ditugula, amaierarik gabeko bide horretan aurrera egiten jarraitzeko. Mota guztietako ardura eta lanetan jardungo dute, orain arte bezala baina modu diferentean.

Martin McGuinness gogoan hartuta –bere omenez hasi bainaiz artikulu hau idazten–, seguru nago etxeko lanak ondo eginda joan zaigula. Utzi digun Irlanda aurkitu zuena baino hobea dela dudarik ez daukat, askatasunetik gertuago dagoena. Eta nire belaunaldikoen ondareak zein beharko lukeen ere badakit: gatazkaren konponbide integrala, preso, iheslari eta deportatu guztiak etxean eta libre eta eta independentzia eskuratuta. Ez gaude horren urruti, nahiz eta askotan kontrakoa irudit.

Nelson Mandelak esaten zuen moduan, «beti dirudi ezinezkoa, lortu arte». •

PALESTINA

Israelgo ministro batek uharte artifizial bat eraiki nahi du Gaza hiriaren parean

 **POLITIKA /** joseangel.oria@gaur8.info

Israelgo lehen ministro kargura iritsi nahi duen Yisrael Katz ministroak uharte artifizial bat eraiki nahi du Gaza hiriaren parean. Bere proposamenak garbi uzten du potentzia okupatzaileak ez duela palestinarrekin gauza handirik adosteko asmorik eta israeldarren segurtasuna dela bertako politikarien lehentasun bakarra.

Yisrael Katz Israelgo Inteligentzia ministroaren buruan ideia zoro samar bat dabil azken urteotan: indar okupatzaileari horrenbeste lan ematen dion Gazako lursailaren parean uharte artifizial bat eraiki nahi du, bertako azpiegiturak indartu eta potentzia okupatzailearen segurtasuna, palestina-

rrei ezer esan gabe, bermatzeko. Berak ez dauka palestinarrekin etorkizuna nolabait adosteko inolako asmorik, bi herriak Palestinan bertan bakean elkarrekin bizi daitezen. Nahiago du politikari kontserbadoreak azken hamarkadotan israeldarrek beti egin izan dutena egin eta beste behin egoera jasangaitz

Baldintza kaskarretan dauden sorgailuen eta kandelen erabilerak 100dik gora palestinar hil ditu azken neguan, argindar krisi larriaren eraginez.

AFP

bat ezarri. Bakerik ez da kabitzen Katzen buruan.

Inteligentzia Zerbitzuen ministroa Likud alderdikoa da, Benjamin Netanyahu lehen ministroaren formazio berekoa, eta Israelgo hedabideek diote lehen ministro izatera iristea dela bere benetako helburua.

Potentzia okupatzaileak erabat itxita dauka Gazako lursaila 2007az geroztik: itsasoa, lurra zein airea. Uharte artifiziala eraikitzeko ideiak segurtasun arloko buru batzuen babes baderu ere, oraingoz ez dirudi aurrera ateratzeko aukera handirik duenik, baina apusturik ez egitea hobe izango da.

BENETAKO ARAZOA ESTALI

Palestinarrek zein benetako bakera lortu nahi dutenek esaten dute Katzek defenditzen duen proiektua benetako arazoak ukitu gabe uzteko beste modu bat baino ez dela, blokeoari amaiera



jartzeko aukera aipatu ere ez baitu egiten. Gogoan hartu behar da NBE Nazio Batuen Erakundeak berak exijitu diola Tel Aviveko Gobernuari blokeoari amaiera jartzeko.


Gainera, Palestinan bi estatu eraikitze aukera bera ere ahulduko luke uharte berriak, palestinarrak Estatuak beharko lukeen lurralde albokotasuna (bere garaian Gaza eta Zisjordania lotuko lituzkeen pasabide seguru bat eraikitze proiektua aipatzen zen, albokotasun hori lortzeko tresna moduan) lortzea zailduko luke-eta.

Katz ministroak Tel Aviven duen bulegoan uharte artifizialaren maketa bat dauka. Uharte artifiziala Mediterraneo itsasoraino eraikiko litzateke, Gazako itsasertzetik bost kilometrora. Itsasoraino eraikiko litzatekeen zubi handi batek lotuko lituzke Gaza eta uhartea. Bide hori suntsitzea edo oztopatzea nahikoa izango litzateke potentzia okupatzailearentzat goian aipatutako lurralde albokotasun hori apurtzeko.

ZENTRAL ELEKTRIKOA

Uharteak izango lituzkeen 534 hektareatan Gazako herritarrek behar dituzten zerbitzuak eskainiko lituzketen azpiegiturak eraikiko lirateke. Yisrael Katzek aipatu izan du gatzgabetzeko instalazioak eta zentral elektriko bat ere eraikiko liratekeela. Ministroak gogorarazten du lursailak duen zentral elektriko bakarra erabat kaltetuta utzi zuela «2014ko gerrak», hau da, Israelgo Armadak 2014ko udan egin zuen eraso militar basatiak: Israelen «Hegi Babesgarria» izeneko operazioak 50 eguneko iraupena izan zuen eta 2.104 palestinarraren (zibilak %80) eta 64 israeldarren heriotza eragin zuen, Gazako milaka etxebizitza eta eraikin suntsitzeaz gain.

Gazako herritarrek geroztik sekulako arazoak izan dituzte argindarrarekin eta edateko moduko ura ere gutxiegi dute, eta kasu askotan kutsatuta egoten da eta gaixotasunak eragiten ditu. «Negu gorri betean, Gazan bizi diren palestinarrak hotzez dardarka daude, argindarrak ga-



Uharte artifizialak aireportu bat eta bi portu izango lituzke, Katzen proposamenaren arabera. GAUR8



Gazako portua, joan den apirilaren 4an.

Mohammed ABED | AFP

be egoten baitira egunean hogeitorduz, egoera okertzen ez denean –genioen GAUR8n urtarrilaren 21eko alean–. Baldintza negargarri horiek salatze makina bat protestaldi egin dituzte herritarrek eta Gazako

agintariek, Hamas mugimendu islamistakoek, errepresioarekin erantzun dute».

PCHR Giza Eskubideen Palestinako Zentroak egin zituen kalkuluen arabera, ordurako 130 herritar hil ziren energia iturri

alternatiboren bat bilatu nahian: baldintza kaskarretan dauden sorgailuen eta kandelen erabilerak eragin zituen istripu gehienak: «Egoera horri aurre egin nahian batzuek gasolina erretzen duten sorgailuak era-

biltzen dituzte, baina erregaia- ren salneurriak gora egin du eta luxuzko produktu bihurtu da. Beste askok egurra erretzen dute berotu nahian, istripuei eta suteei atea zabalduz».

Gazako jarduera industrialak bera ere erabat kaltetu du elektrizitate ez izateak. Denda eta establezimendu askok murriztu egiten dituzte beren ordutegiak, egoera negargarri horretara egokitu nahian.

AIREPORTU BERRIA

Gainera, Likud alderdiko ministroak aireportu bat eraiki nahi du uharte artifizialean. Ez da ahaztu behar orain hogeiren bat urte Gazako lursailak bazuela nazioarteko aireportu bat, Europar Batasunak ordainduta, eta Israelgo Armadak suntsitu egin zuela 2001ean. Zer egingo du Bruselak, beste aireportu bat ordaindu, aurrekoaren suntsiketa-rengatik Tel Avivi ezer ordainarazi gabe?

Gainera, Katzen irlak zama-portu bat izango luke, Gazako ekonomiak bere produktuak esportatzeko aukera izan dezan. Munduko Bankuak egindako ikerketen arabera, Israelek ezarritako blokeoaren eraginez lurralde palestinarrak ez du ezer esportatzen aspaldi honetan.

Ministroaren proiektua gauzatzeko 5.000 milioi dolar beharko lirateke, orain arte egin dituen kalkuluen arabera. Berak uste du bertako konpainia pribatuek finantzatu dezaketela proiektua.

Yisrael Katz politikari beterrakoa da eta behin baino gehiagotan onartu du gobernuburu izatera iritsi nahi duela. Baina ezin esan bera Israelgo lehen ministro bihurtuta palestinarraren egoera hobera egingo duenik, israeldarren segurtasuna baino ez baitu buruan. Horregatik azpimarratzen du uharte berriko portuaren segurtasuna okupatzaileek beren mendean edukitzea dela garrantzitsua.

Hori bai, uharteak nazioarteko Poliziaren baten egoitza izango omen luke, balizko herritarren haserrealdiren batek potentzia okupatzaileko indarrak arriskuan jar ez ditzan.



UR KUTSATUA EDATEAK GAI XOTUTAKO HERRIA

Gazako lursaila basamortuaren eta itsasoaren artean harrapatuta dago. Oso euri gutxi egiten du eta egiten duenean sortzen diren ubideak baino ez ditu (ez dago ibairik).

Erreserba freatikoari (lurpean pilatutako ura) ur gehiagi kentzen zaio gizakion jardueren eraginez, eta itsasoko ura sartzen denez geruza freatikora, gazitasunak gora egiten du. Gainera, kutsadura kimikoa zein mikrobiologikoa erantsi behar dira. «Geruza freatikoko uraren %97 ez da edateko modukoa gatz gehiagi baitu, inoiz ezagutu ez dugun gazitasun maila», Munther Shoblak Gazako ur konpainiako zuzendariak esplikatu duenez.

Geruza horretako ura kontsumitu beste erremediorik ez dute herritar gehienek. Horretarako etxeko kanila ireki behar dute (tutueria oso zaharkituta dago), edo putzuren bat egin. Edonola ere, ur garbirik ez dute lortuko eta herritar asko gaixotu egingo dira. «Giltzurrunetako gaixotasunen batek jotako pazienteen kopuruak %14ko hazkundera izaten du urtean», Abdallah al Qishaui Gazako Shifa ospitaleko Nefrologia departamenduko buruak azaldu duenez. Giltzurrunetako arazo horiek tentsio arterial altuak, diabetesak eta gaixotasun hereditarioek eragiten badituzte ere, «uraren kutsadurak ere zerikusirik baduela ezin da ukatu».

Beste erremediorik ez dutelako erabiltzen dute kutsatutako ura Gazako herritarrek. Sukaldean,

arropa garbitzeko eta nekazaritzan ere ur gazi samarrarekin aritu behar izaten dute. Luxuzko hoteletan ere dutxak ur gazia eskaintzen du.

Kanilak ur gazikara ematen du eta erabili aurretik irakiten jarri behar dute. Gainera, behin baino gehiagotan kanilak ez du ezer ematen, likido gehiena bidean galtzen baita, tutueria egoera negargarrian dagoelako. Batzuek putzuak egitea erabakitzen dute eta lortutako ura zisternatan gordetzen dute. Baina hori egiteko ere argindarra behar izaten dute.

Sami Lubad Osasun Ministerioko Ingurumen arduradunak esplikatu du kutsadurak eragiten duela geruza freatikoan kloruroen eta nitratoen mailak gora egitea. Jaioberrietan sortzetiko zianosia edo «gaixotasun urdina» eragin dezake eta ume horrek gero minbizia jasateko aukera gehiago izango ditu, Adnan Aish irakasleak esan duenez. Kutsadura mikrobiologikoa nekazaritzatik eta hondakin-uretatik sortzen da. Kimikoa, aldiz, pestizidetatik eta eraso militarrek utzitako metal astunetatik. «Berunak eta sufreak, batez ere, giltzurrunetako arazoak eragiten dituzte», Qishaui doktoreak jakinarazi duenez.

Arazo horiek saihestu nahian, herritarren bi heren inguruk konpainia pribatuei erosten diete ura: euro erdia, 16 ur litroren truke, Unicef erakundeko June Kunugik azaldu duenez. Baina ur hori gatzgabetua izaten da eta normalean kutsatuta egoten da.

Gazako haurrak eta emakumeak Uraren Nazioarteko Eguneko logotipoa margotzen, joan den martxoaren 22an.
Mohammed ABED | AFP

«Gaza zuzentzen duen Hamasi Israeli eraso egiteko asmoa kentzeko modua aurkitu behar dugu, palestinarrek beren bizitza bizi dezaten oztopatu gabe», adierazi dio Yisrael Katzek France Presse berri agentziari, palestinar herritarrekin zer gertatzen den garrantzitsua irudituko balitzaio bezala.

NAZIO BATUEN PRONOSTIKOA

Nazio Batuek dagoeneko esan dute egungo egoera aldatu ezetan, Gazan hemendik hiru urtera bizitzerik ez dela izango. Beste begirale batzuek nabarmendu dute herritarren frustrazioa gora egiten ari dela etengabe, bizi duten nahaste-borraste politiko zein ekonomikoaren eraginez, eta ezin dela baztertu Gazakoek berriz armen bidea hartzea.

UNCTAD Nazio Batuen Merkataritza eta Garapenari buruzko Konferentziak 2015eko irailean argitara eman zuen txosten baten arabera, azken urteotan Israelek egin dituen eraso militarrek produktuak esportatzeko gaitasuna kendu diote Gazari eta 2014az geroztik barne eskaria asetzeko gauza ere ez da bertako jarduera ekonomikoa. Lehen ere oso ahulak ziren azpiegiturak erabat suntsitu zituzten erasoaldiek eta potentzia okupatzaileak berreraikuntza behin eta berriz oztopatu du. Horregatik, oso bizkor hazi dira pobrezia eta berarekin lotuta dauden fenomenoak. Nekazaritzak 550 milioi dolarreko galarak izan zituen.

Kalte ekonomikoak zenbatzea ezinezko bihurtzen da Gazak bizi duen egoera penagarrian. Esaterako, zenbat balio du hama-

Kanilak ur gazikara ematen du eta irakiten jarri behar dute. Askotan kanilak ez du ezer ematen, likido gehiena bidean galtzen baita, tutueria egoera negargarrian dagoelako

Beste begirale batzuek nabarmendu dute herritarren frustrazioa gora egiten ari dela etengabe, bizi duten nahaste-borraste politiko zein ekonomikoaren eraginez

HIRU HERRITARRETIK BAT, DROGAZALE BIHURTUTA

bost erietxe eta dozenaka osasun-etxe suntsitu izanak eragin-dako milaka herritar gaixoren tratamenduak?

Gazako herritarrek Israelek ezarritako blokeoa dute iparraldean, ekialdean zein itsasoan. Potentzia okupatzaileak esaten du blokeoa beharrezkoa dela, Hamasek armarik lortu ez dezan. Edo armak ekoizteko gairik eskuratu ez dezan. Hegoaldean, berriz, Israelen morroia dirudien Egiptok Rafah-eko pasagunea itxita dauka.

Omar Chaaban Gazako ekonomialariak uste du ezin dela esan uharte artifizialaren kontua teknikoa denik, «politikoa eta juridikoa baizik»: «Edozein irtenbidek testuinguru politikoa eta akordioa behar ditu, irtenbide hori aplikatzeko garaian atzerriarren gainbegiratzea beharko da-eta. Egia da Israelek bere segurtasuna bermatu nahi duela, baina segurtasun horrek palestinarrori zein eskualde osoari mesede egiten dio».

Tania Hary israeldarra da eta Gisha izeneko gobernu kanpoko erakundean egiten du lan. Urteak daramatza blokeoa salatzeko eta bere ustez Katzen uharte ez da beharrezkoa, Gazakoen bizimodua eta baldintzak berehala hobetzeko nahikoa izango bailitzateke bere produktuen esportazioari jarri zaizkion mugak kentzea. Gishako zuzendariak galdetzen du ea zein den Inteligentzia ministroaren benetako helburua. Eta bere buruari erantzuten dio: «Gazak isolatuta jarrai dezan ahalbidetzea».

Raji Surani palestinarra da baina bat dator Hary israeldarrarekin. Gazako Giza Eskubideen Palestinar Zentroko zuzendariak adierazi du tankerako proiektuek ez dutela ezer konponduko, onartzeko moduko irteera bakarria blokeoari eta dagoeneko 50 urteko iraupena duen lurralde okupatuaren okupazio militarri amaiera ematea baita. Suranik nabarmentzen du Gazako herritarrak blokeoarekin, gerrarekin, langabeziarekin eta pobreziarekin nazka-nazka eginda daudela, eta «gizaki normalek bezala bizi nahi dutela, besterik gabe».

«Sekulako fenomeno da, eta izugarria», adierazi berri du Eyad al Bozom Gazako Barne Ministerioko eledunak lege kontrako drogen kontsumoak azken bolada honetan izan duen hazkunde paregabearen harira. Berak emandako datuen arabera, aurtengo urtarrilean iazko hamabi hilabeteetan baino droga gehiago konfiskatu du Hamasek zuzentzen duen Poliziak. Horregatik, ezinbestekotzat jo du narkotrafikatzaileei zigor gogorak ezartzea, «herriari eta beren buruari egiten dieten kaltearengatik».

Gaza aire zabaleko espetxe handi bat dela esan izan da eta bertan gertatzen diren fenomenoek ere kartzeletan izaten direnak ekartzen dituzte gogora. 340 kilometro koadroko eremua blokeatuta dauka Israelek, eta bertakoek, gazteek batez ere, gero eta ilunago ikusten dute geroa. Horri leporatzen diote hiru herritarretik bat drogazale bihurtu izana.

Ahmadek 29 urte ditu eta ezkondua dago. Ia lau urte daramatza Tramadol izeneko botika kontsumitzen, hau da, morfinaren tankerako analgesiko opioidea, min-kentzaile hori hartuz gero hobeto sentituko zela esan baitzion lagun batek. «Gure egoera beldurgarria da eta era honetan Gazan bizitzea oso zaila da», esan dio Efe agentziako kazetariari abizena eman nahi ez duen gizonak. Haren iritziz, errealitate gordina horrenbeste sufritu nahi ez duten gazteek hartzen dute Tramadol kontsumitzeko erabakia. Ahmad PAN Palestinako Aginte Nazionalako polizia zen Hamasek 2007an agintea hartu zuen arte. Lanik gabe geratu zenean hasi zen analgesikoak hartzen. Une honetan mendekotasun hori atzean uzten saiatzen ari da, gibela eta giltzurrunak kaltetuak baititu.

Gazan ia ez da publikoki hitz egiten drogazaleei buruz. Psikiatreek diote populazioaren zati handi bat dela gaur egun drogaren bat hartzen duena. Ibrahim Zaqout psikiatrak nabarmendu du azken lau urteotan ikaragarri hazi dela Tramadol bezalako drogen kontsumoa eta berak egin dituen kalkuluen arabera, populazioaren %35 da drogazale.

Gaza blokeatuta dagoenez, Egiptoko mugaren azpian eraikitako tuneletatik barrena iristen dira lege kontrako drogak bertara. Hamasek berak bultzatu zuen tunel horien eraikuntza, herritarrek behar zituzten oinarritzko produktuak eta erresistentziak ezinbesteko zituen armak lurraldera sartu ahal izateko.

Garai batean 1.400 tunel edukitzera iritsi ziren, baina Egiptoko agintariak suntsitu egin dituzte gehienak. «Egiptotik Gazara tuneletatik barrena iristen ziren produktuen kontrolik ez

zegoen eta horri esker droga kantitate handiak sartu ziren», esplikatu du medikuak.

Zergatik hazi da kontsumoa? Ibrahim Zaqoutek garbi dauka Gazakoen «bizi baldintza gogorrek» eragin dutela fenomeno: pobrezia eta langabezia tasa altuak eta geroari buruzko itxaropen guztiak galdu izanak. Gainera, Israelek ez du bere jarrera aldatzeko asmorik eta Al Fatah eta Hamas alderdien arteko tentsioak bere horretan jarraitzen du. «Faktore horiek guztiek bultzatzen dute herritarra kontsumitzera», dio.


Orain aste batzuk Hamasek eraturako auzitegi militar batek heriotza zigorra ezarri zien bi narkotrafikatzailei,

aurrekaririk ez zuen gertaera. Horietako bat preso zuten Gazan bertan, eta bestea Israelera ihes eginda zegoen. Nasser Suleiman Gazako auzitegi militarreko buruak jakinarazi zuen beste 30 lagun aurrakako prozesuak ere abian jarri dituztela.

Asteotan drogaz betetako bi kamioi konfiskatu dituzte Hamasek eratu dituen segurtasun indarrek. Ahmed al Qedra drogen aurkako poliziaburuak indar okupatzaileari egotzi dio Gazan horrenbeste droga egotea. Bere tesiaren arabera, itsasoz ekartzen dituzte eta helburua litzateke palestinarrak erresistentzian esku har ez dezaten. Garai bateko Euskal Herrian bezala.



Gazako polizia bat trafikatzaleei konfiskatutako Tramadol botika erakusten. GAUR8



Gazan Tramadol analgesikoaren aurka egindako grafiti bat. GAUR8

KOLONBIA

Mocoa hiriko El Carmen auzoko herritarrek basoari eutsi zioten eta, trukean, zuhaitzek bizia salbatu zieten

Mocoa tragedia 300dik gora hildako, erabat suntsitutako makina bat auzo eta aurrera begira kontuan hartu beharreko hainbat lezio utzi dizkigu. Hiru elementuk bat egiten dute martxoaren 31ko gauerdiko gertaeran: FARC gerrillaren eta Gobernuaren arteko gerrak eragindako iheslariak, Andeen eta Amazoniaren artean dagoen eremuak klima aldaketaren eraginez jasaten dituen hondamendi naturalek eta Kolonbiako eskualde gehienek jasaten duten gabezia betetako lurralde antolamenduak. Gainera, tragediak aurrera begira zer egin adierazi nahiko baligu bezala, hedabide batzuek «El Carmengo miraria» deitu duten salbuespena ere gertatu zen Mocoan: auzoko herritar gehienak bizirik eta horien etxeak kalte handirik gabe atera ziren eremua inguratzen duten zuhaitzek babestu zituztelako. Deforestazioa zein punturaino den kaltegarri konturatzeak akuilu paregabea.

600 LITRO ORDU GUTXIAN

Mocoa 600 metroko altueran dago, Putumayo departamenduaren mendebaldean, Kolonbiako hegoaldean. Martxoaren 31ko gau tragiko hartan euri asko egin zuen, 600 litro inguru metro koadroko oso ordu gutxian, kopuru ikaragarria uholdeetara ohituta dagoen eremu horrentzat ere. Juan Manuel Santos presidentek berehala leporatu zion tragediaren ardura klima aldaketari, eta neurri batean behintzat arrazoiak zuen, aditu guztiek onartzen baitute berotze globalak uholde gero eta beldurgarriagoak eragingo dituela Mocoa bezala ibaien ondoan eraikitako hirietan.

Hala ere, saihestezina zen natur hondamendia erabat larriagotu zuen gizakien jarduerak. Eremuko zuhaitzak kendu izanak sekulako eragina izan zuen,

Luis Alexander Mejia Bustos Corpoamazonia erakundeko zuzendariak esplikatu duenez: «Landare-estaldura kentzen diogunean, neurri handi batean sumendi-errautsez osatutako lurra busti egiten da eta euriak txikizioa eragiten du».

Bizirik atera ziren herritarrek kontatu dute etxe baten neurriko harkaitzak ere ekarri zituztela gau hartan Mocoa, Sangoyaco eta Mulato ibaiek. Adituen txostenek diote Putumayo departamenduak deforestazio tasa larriak jasaten dituela (hala ere, beste lau daude okerrago Kolonbia osoan) eta bertako 9.000 hektarea zuhaitzik gabe utzi dituztela, abeltzaintzan eta legez kontrako nekazaritzan erabili ahal izateko.

Gainera, San Francisco eta Mocoa hiriak lotuko dituen VSFM autobidea eraikitzen ari dira eta Rodrigo Botero ekologistak salatu du errepideko ezpondek utzitako sedimentuak Mocoa ibaiaren arroan eragin kaltegarria izan duela.

Justizia eta Bakearen Elizarteko Batzordeak, berriz, meatzari-tzak baldintza geologikoekiko kalteberatasunak gora egitea ekarri duela nabarmendu du: «Hondamendi natural bat izateaz gain, Putumayo departamenduak bizi duen egoera negargarria prebisio faltaren fruitu da, arriskuak neurtzeko, planifikatzeko eta lurraldea antolatzeke garaian izandako prebisio faltarena; eta, aldi berean, erabat pobretutako herritarrak baztertuta edukitzearen fruitu, sekulako arriskua duten puntuetan eraikitzen baitituzte beren etxolak».

CHIPAROA

Zygia longifolia da El Carmen auzoa salbatu duen basoan nagusi den espeziearen izen zientifikoa. *Chiparo* esaten diote Kolonbian. Oihan primarioa da, birjina, auzokoek salbatu zutena, eta bestelako espezieak ere ageri dira: zedroak, *lecythidaceae* familiako cachimboak, *proteaceae* familiako makila beltzak

JENDARTEA / joseangel.oria@gaur8.info

Putumayo departamenduko Mocoa Erabateko Babesa duen Eremu izendatu du Santosen Gobernuak, martxoaren 31ko tragedia dela-eta. Hemendik aurrera ezingo da bertan ezer eraiki. Deforestazioa da agintariek saihestu nahi duten fenomeno, hurrengoan kalteak hain larriak izan ez daitezen.

Euri-zaparradek eragindako lur eta arroka irristatzeek honelako irudiak utzi zituzten 70.000 biztanle inguruko Mocoa hirian. Luis ROBAYO | AFP

eta *arecaceae* familiako chontak, zeiba batzuekin batera.

Hiru hektarea horiek zeuden bezala uztea erabaki zuten auzokoek, Bertha Solartek gogorarazi duenez. Hogeita bi urte daramatza El Carmen auzoan. Auzoa

zutitu aurretik, auzokoek sei hektarea zituzten beren esku eraikitzeko, «baina bertan bizi behar genuenok erabaki genuen eremuaren erdia landareentzat uztea, orain auzotar gehienon bizia salbatu duten zuhaitz horientzat uztea».

Grasse Vargas ere auzokoa da. Bere ustez, «basoak ekidin zuen lokatz jausiak gauza eta pertsona guztiak eramatea», Luis Gilberto Murillo Ingurumen ministroak berak geroxeago baieztatuko zuena.

Chiparoak eutsi egin dio lurrari, euri asko egin duen arren. Espezie horren garrantzia nabarmendu du Corpoamazonia erakundeko aditu batek: «Oihan primario hori oso garrantzitsua izan zen hildakoen kopurua eta kalte ekonomikoak




handiagoak izan ez zitezen. Bere sustraiak oso indartsuak direnez, lur-jausiari eustea lortu zuen chiparoak».

Ingurumen Ministerioak hegazkinetik egin eta banatu duen argazki batean zutik dauden zuhaitz bakarrak chiparoak dira.

Putumayo departamenduak deforestazio tasa larriak jasaten ditu eta bertako 9.000 hektarea zuhaitzik gabe utzi dituzte, abeltzaintzan eta legez kontrako nekazaritzan erabiltzeko

«Horrelako zuhaitzak ezinbestekoak dira, ura xurgatzeko eta gordetzeko sekulako gaitasuna baitute, eta beren sustraiek lurrari euskarria eta egonkortasuna ematen baitiote»




El Carmen auzokoen basoa orain hamarren bat urte indartu zuten, gobernuz kanpoko erakunde baten ekimenez. 1.800 zuhaitz landatu zituzten, reforestazio edo basoberritze programa baten barruan. Auzoko atzeko aldean asko landatu zituzten, eta horri esker hobeto eutsi diote bertako espezieek. Gainera, El Carmengo herritarrek harrizko bideak egin zituzten, ekosistema ez kaltetzeko.

Baso primarioak ura pilatzeko gaitasuna ere badu, Jairo Solorza Bogotako Lorategi Botanikoko bioaniztasun arloko koordinatzaileak nabarmendu duenez: «Horrelako zuhaitzak ezinbestekoak dira, ura xurgatzeko eta gordetzeko sekulako gaitasuna baitute, eta beren sustraiek lurrari euskarria eta egonkortasuna ematen baitiote, eta horri esker lurra bera trinkotu egiten da, eta higadura saihesten da».

BERTARA ITZULTZERIK EZ

Solorzak egin duen irakurketaren arabera, landare estaldurak berak sortu zuen lurraren euskarri egitura, oztopo moduan funtzionatu zuen jausia gertatu zenean eta etxebizitzek kalterik izan ez zezaten lortu zuen. Adituaren iritziz, orain lehenbailehen basoberritu behar dira kalte gehien jasan dituzten eremuak, «zuhaitzak beharrezkoak baitira. Mocoaren kasuan, baso estaldura hobea izan bagenu, bestelako neurriak hartzeko aukera ere izango genukeen».

Hala ere, Bertha Solarte ez dago pozik. Geroa ilundu egin zaie, auzoa utzi beharrean baitira, bertara zerbitzu publikoak eramatea ezinezkoa delako une honetan. Ebakutzeko agindua jaso zuten. Laguntza ere iritsi zaie: ura, janariak eta arropa. Grasse Vargas, berriz, berak zaindu zuen eremu berde hori utzi behar izateak tristatzen du. Harro esaten du El Carmengo auzotar guztiek zaintzen zutela basoa. Vargasek “El Colombiano” egunkariari jakinarazi zion auzokoek erabaki zutela etxebizitza berriak eraikitzeko bazen ez zituztela lur horiek salduko. Nahiago izan zutela basoa eta ibaia garbi eduki, negozioa egin baino.



Minga elkarteak iaz egin zuen batzarreko irudia. GAUR8

TANKERAKO GERTAERARIK EZ ERREPIKATZEKO HAUSNARKETAK

Minga elkarteak “Mocoako tragedia ez dadila zigorrik gabe geratu” izenburuko idatzia plazaratu du, martxoaren 31ko tragediaren harira makina bat hausnarketa eginez, «tankerako gertaerarik errepikatu ez dadin». Idatziarekin bat egin dute Putumayoko elkarte askok.

Giza mugimenduek nabarmentzen dute Putumayoren historia estraktibismoarekin lotuta egon dela, batez ere petrolio ateratzeko jarduerekin, eta azken urteotan meatzaritzarekin, Sibundoy bailarako goiko aldeko eta Mocoa hiriaren inguruko mendietako proiektu handinahiekin. Vetra, Gran Tierra, Amerisur eta Anglo Gold bezalako konpainiek negozio egiteko aukerekin margotu dute Putumayoko mapa, bertako ekosistemak eta bertakoen bizimoduak eta kulturei jaramon egin gabe. «Arpilatze ekonomia» deitzen diote Mingakoek: «Lurraldeei eta bertan kokatutako herriei ezegonkortasuna eragiteko faktore nagusia da arpilatze ekonomia».

Agiriak eransten du orain 50en bat urte ezarri zitzaizola Putumayori eredu hori, ingurumena eta bertakoen bizimodua kaltetzeko. Gaur egun pobrezia eta indarkeria dira nagusi. Ura bezalako baliabide bat eskuratzeko gero eta arazo gehiago izateak, betiko ekonomiaren gainbeherak, ustelkeriak eta militarizazioak iheslariak eragiten dituzte. Eta Mocoa da estraktibismoak eta indarkeriak eragindako iheslari gehien hartzen dituen departamenduko udalerria.

Lur eta arroka irristatzeak adituek iragarrita zeuzkatela gogorarazi ondoren, Mingakoek nabarmentzen dute Mocoako osasun sistemak ezin izan diola era egokian erantzun krisiari. Baina muturreko fenomenorik ez denean ere herritarren beharrak asetzeko gauza ez dela diote: «Putumayotik 50 urte petrolio ateratzen pasatu eta gero, departamenduak ez du oraindik bigarren mailako erietxe bat ere».



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Azpiegiturak eta nazioa

Monzonek ez zuen Eibarko Maltzaga auzoa kasualitatez aukeratu abertzaleen arteko balizko batasuna irudikatzeko. Maltzaga trenbide-lotune garrantzitsu bihurtutako bidegurutze geografiko estrategikoa zen, bertan topo egiten baitzuten Deba eta Ego ibaiek, baita Bilbo-Donostiako zein Vasco-Navarrokekin lotura zuen Debako trenek ere. Azpiegiturak funtsezkoak direnez nazio bat egituratzeko, Maltzagako trenbide-lotunea metaforikoki egokia zen, «hegozentrista» samarra izan arren. Denborarekin, baina, bide-azpiegitura gehiago eraiki dira bertatik, AP-8 (Bilbo-Behobia) eta AP-1 (Eibar-Gasteiz) autobideek Maltzagako bidegurutzea egiazko gordiar korapilo bilakatu dutela. Badirudi porlanak Maltzaga ito duela. Eta akaso ez soilik Maltzaga erreala.

EAEko azpiegiturak kudeatzeko saila PSEri lotsagabeki kendu ondoren (lurralde-antolamenduarekin batera egonda, orain arte), EAJren azpiegituren apologiak goia jo du egunotan: Bilboko metroaren 3. linearen inaugurazioa ETaren armagabetzea baino garrantzitsuagoa izan dela esan du Andoni Ortuzarrek, lasai asko. Ondorioz, ez da asko hausnartu behar asmatzeko zer izan liteke, Ortuzar eta bere alderdiarentzat, Euskal Herriaren independentziaren eguna baino garrantzitsuagoa... Jakina: AHTren inaugurazioa. Lotune estrategiko berri bat utziko ei diguna Maltzagatik gertuko lurretan, metafora politiko berriak sortu nahi dituenarentzat: Arrasate-Bergara-Elorrioko bidegurutze hirukoitza, Igueria auzoa erdian duena (EAEko Maltzaga berria?), zeinaren

eraikuntza obren esleipenak, jada deuseztatuak, prebarikaziotik oso-oso gertu egon diren, enpresen bajak ausartegitizat ez jotzeagatik, %48koak izan arren. Hori bada Maltzaga berria, jai dugu.

Eta azpiegitura gutxi bagenitu bezala, errepide-sarea ia amaitutzat jotzen denez, orain tren-autobidearen soluzio miresgarria datorkigu. Hain zuzen ere, trafikoa bideratzeko lehen mailako autobideak jada eginak ditugunean (lehen aipatutako Eibar-Gasteiz, adibidez), orain bururatzen zaigu kamioiak trenen gainean ere garraia daitezkeela, eta, horrela, merkantzia-trafikoa biderkatu, arrazionalizatu ordez. Adierazgarriak dira tren-autobideen inguruan Frantziak eta Espainiak asteotan argitaratutako lehiaketak, soilik enpresa ekoizleen interesak ezagutzera bideratutakoak. Alegia, arazotari emango zaion soluzio teknikoak ez du interes orokorra babestuko, baizik eta enpresen behar ekonomiko partikularra.

EAEko gobernuak, noski, jada «estrategikotzat» jo du Frantziako iparretik etorriko litzatekeen tren-autobiderako terminal-geltoki erraldoi bat egitea Gasteizko Jundizen, Irun eta Astigarraga artean eraikitzen ari den 3. tren-haria haraino luzatuz. Bitxia, Jundizen eraiki nahi den terminala errebotetz erori zaigulako: Landetako Tarnosen eraiki behar zen hasiera batean, 20 hektarea okupatuz, eta, azkenean, ingurumen-eragin kaltegarriengatik ez da bertan egingo. Tarnosen kaltegarri dena, bada, zer mekanismoren bidez bilakatzan da Jundizen estrategiko? •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Ez IRA, ez eta GRAPO ere

Antonio Camacho Espainiako Barne Ministerio-rioko Estatu idazkari (2004-2011) eta ministro (2011-2012) izan zen Rodríguez Zapateroren Gobernuaren garaian. ETArekin izandako negoziazioek porrot egin ostean, 2008ko azaroan, euskal erakunde armatuak IRA bezala amaitzeko aukera izan zuela baina GRAPO taldeak bezala amaituko zuela esan zuen Camachok.

Bistan da ETak ezin izan ziola IRaren bideari jarraitu; beste gauza batzuen artean, aurrez aurre izan dituen gobernuen jokabideagatik. Oso adierazgarria izan da, azken urteotan, Rajoyren Gobernuarena, egindako urrats bakarra blokeo jarraitik boikot aktibora pasatzeko egindakoa izan baita. Jonhatan Powellek, IRArekin negoziatioetan funtzio oso garrantzitsua izan zuenak eta euskal gatazka-ekin ere harremana izan duenak, duela egun gutxi “Financial Times” egunkarian Madrilen jokabide zikoitza agerian utzi du. Bai, hala da, ETak ezin izan dio IRaren bideari jarraitu; beste gauza askoren artean, mahaiairen beste aldean ez zuelako Powellen modukorik izan. Egigurenek, akaso, izango zuen britainiarraren aldartea, baina ez boterea. Agindu Rubalcabak agintzen zuen.

GARak gaztelaniaz argitaratutako Powellen artikulua horrek badu, halere, datu oker bat. Tony Blairren laguntzaile nagusi izandakoak dio ETak eragindako hildako gehienak zibilak izan zirela, baina ez da horrela, hildako gehienak poliziak eta militarrek izan baitziren. Kontakizunaren bataila hainbeste aipatzen den garaiotan, kome- ni da datu zuzenak erabiltzea.

IRaren bidea hartu ez izateagatik GRAPOrena hartuko zuela ETak esan zuen Camachok, ahuleriaren ahuleriaz hilko zela adierazteko. Guardia Zibilaren atzaparretan amatatuko zela, alegia. Antza, Baionan apirilaren 8an ikusitakoaren arabera, ETak bazuen hirugarren aukera bat, ezker abertzalearen estrategia berrituaren bidetik: hau da, aldebakartasunetik ziklo independentista hauspotzea eta herri nagusitasuna sustatzea. Gakoa ez baita operatiboa eta militarra, politikoa eta soziala baizik.

Euskal Herrian izan dira beste erakunde armatu batzuk kasik isiltasunean amaitu direnak. Talde Autonomoak, Iraultza, Hordago... Iparretarrak-ek ere, bestelako itzal edo segida politiko bat utzi arren, ez zuen amaiera jendaurrean adierazi, eta hori egin ez izana akatsa izan zela esan duenik ere bada bere militanteen artean. Nonbait, arazoa ez da erabakia bera hartzea eta ezagutaraztea (borroka armatua utzi, armagabetu edo erakundeari

amaiera eman, azkenaldian aipagarri diren hiru adibideak aipatzegatik), erabaki hori zergatik eta zertarako hartzen den baizik. Zer-nolako prozesu politikotan txertatzen den egindako urratsa da gakoa, eta, jakina, inolako prozesu politikorik ez badago, orduan bai hitz egin daitekeela porrotaz. Porrot gogorrenaz, porrot politikoaz.

Baina ez dirudi hori denik aurreko apirilaren 8aren inguruan gertatutakoa. Ikusi besterik ez dago armagabetze ekimena gutxien edo errendiziotzat jotzen saiatu direnen amorrua eta ezinegona. Garaile ozpinuak benetan.

Zenbait jende propagandan eta intoxikazioan ari dela esan zuen ETak Aberri Eguneako agirian. Bada halakorik, bai. Orain dela gutxi ETak apenas zuen armarik eta orain, berriz, misilak ere ezkutuan omen ditu. Albiste biak egunkari berberetan irakurri ditugu aste gutxiren aldearekin. Armagabetzearen emaitza bera zalantzan jartzen hasi dira batzuk, prentsa filtrazioen bidez, “bakearen artisauek” zabalduak datuak kolokan jartzen. Txetx Etcheverryk aste honetan “Berria”-ri emandako elkarrizketan joko zikin hori agerian utzi du, armagabetzearen helburua bete ote den galdetu diotenean: «Egiaztatua izaten ari da. Espainiako prentsan polemikak sortzen ari dira, baina irakurri dudanak ez du bat egiten gaur egun nik ditudan informazioekin». Bi gauza hartu behar dira kontuan: lehena, Etcheverryk harreman zuzena du Frantziako agintariekin eta, beraz, badu datuak baieztatze-ko aukera; bigarrena, Guardia Zibila egoera nahasteko ahal-eginean aritu dela detektatu dute, apirilaren 8aren aurretik eguna oztopatzeko presioak eginez eta, ondoren, zalantzak sortzeko datu okerrak zabaltzen. Arazo handia dute, ordea, Frantziako Barne ministroak ontzat eman baitzuen armagabetzea apirilaren 8an bertan, oraindik zenbait arma galdurik egon daitekeela jakin arren.

Xelebrea ere bada Espainiako hainbat politikaririk diotena: armagabetzea egiazki baieztatze-ko ez dago bermerik. 2014tik hona, ETaren armategiaren inbentarioa egiteko martxan jarritako prozesua oztopatu baino ez dute egin eta orain bermeak eskatzen dituzte. Lehen, nahikoa zuten ETak GPS puntu batzuk ematearekin, eta orain, armak gizarte zibilaren esku agertu direnean, zorrotasuna galde- giten dute, seguru asko, afera irekia uzteko eta aurrera ez begiratzeko. Blokeoan segitzeko gogoz.

Ekimenak lortutako babes handiak, ordea, lekuz kanpo utzi ditu halakoak Euskal Herrian, Matteo Zupplik Munilla lekuz kanpo utzi duen bezalaxe. •

ETak bazuen hirugarren aukera bat, ezker abertzalearen estrategia berrituaren bidetik: hau da, aldebakartasunetik ziklo independentista hauspotzea eta herri nagusitasuna sustatzea

HISTORIAK JANTZIAK JOSI

Iraultza dantza taldeak sustatua, ateak ireki ditu Errenterian Jantzien Zentroak

Nola janzten garen, zein janzki erabiltzen dugun eta zein ez. Zergatik konbinatzen diren estanpatuak modu batean edo bestean. Zergatik diren gonak luzeagoak edo motzagoak, gal-tzak zabalagoak edo estuagoak. Zergatik estali burua zapiak edo kapelaz, eta zein kolore erabili hara edo hona joateko. Ezer ez da kasuala, edo ia ezer ez; eta idatzita ez baina onartuta dau-den arauak existitzen dira janz-teko garaian ere. Protokoloak eta pautak existitu ziren atzo eta existitzen dira gaur ere; adi-bidez, txuria ezkontzeko, beltza hiletara joateko, nahiz eta gure amonek kolore hura erabili zu-ten, hain zuzen, senarrari «bai, nahi dut» esateko. Koloreen esa-nahia aldatuz doa garaien joan-etorriarekin batera.

Historia jantzien bidez ulertu eta azaldu ahal izatea izan da Errenteriako Iraultza dantza tal-

 **ONDAREA /** Oihane Larretxea de la Granja

Historiaren bidez jantzien garapena ulertu, edo jantzien garapenaren bidez Historia ezagutu. Batzuetan zaila da argitzea zer izan zen kausa eta zein ondorio. Errenteriako Jantzien Zentroak gako batzuk eta bitxikeria ugari uzten ditu agerian orain Iraultza dantza taldeak Kapitain Etxean biluztu duen arropa bilduma pribatuari esker.

deak buruan bueltaka aspalditik zuen ideia, ametsa, gaur errealitate bihurtua. Apirilaren 1ean zabaldu zituen Jantzien Zentroak ateak, ia hogeituroko lan eta saiakeren ostean. Eraikina bera ikusgarria da. Kapitain Etxea delakoak hiru sute jasan zituen, eta gaur egun zutik dagoena 1638. urtekoa da.

Erakusketa sei hilabetetik behin aldatuko dute eta, uneotan, 30 jantzi prestatu eta aton-

du dituzte jendaurrean erakus-teko; batzuk Euskal Herriko jantziak dira (1880-1910 urte artekoak), besteak atzerrikoak eta garai ezberdinetakoak. Aretotxuan sartzea denboran bidaizte bezalakoa da, zaharrena 1770. urtekoa delako eta «berriena» 1920koa. Atera kontuak, jantzi batzuek ia 250 urte dituzte. Hitz egingo balute...

Ainhua Mendiburu Iraultza dantza taldeko kidearen eskutik

Euskal Herriko herri jantziak. Txapel txiki eta beltza zeramaten gizonak; egoera zibilaren arabera zapia emakumeek.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

deskubritu ditugu sekretuak eta kondairak, hamaika bitxikeria eta nola ukatu, emakumeak kor-tseekin historian zehar sufritu duen guztia, ia arnasa ezin har-tuta ibili baita mendeetan ze-har.

ARROPEN PRESTAKETA LANAK

Zentroan ikusgai dauden jantzi guzti-guztiak originalak dira, eta denak Iraultza dantza taldearen bilduma pribatuaren parte dira. Lehen erakusketa honetarako prestatu dituzten jantziak biltegian ondo gordeta duten bildumaren %20 dira; beraz, asko dute oraindik erakusteko. Gainera, erakusketak prestatzen joango diren neurrian, eta ekonomikoki posible den heinean, erosten ibiliko dira bilduma handitzeko.

Bisitariari, lehenik eta behin, jantzi bat manikian jarri aurretik atzean dagoen lana zein den erakusten diote. Izan ere, Mendiburuk berak aitortzen duenez, pieza bakoitzaren prestaketa la-



nak dedikazio handia du. «Oso prozesu luze eta mantsoa da, mimo eta kontu handiz egiten dena. Trajea iristen denean lehen gauza garbitzea da, eta xurgagailu berezi batekin hautsa kentzen zaio ondoren. Harribitiak edo pieza delikatuak badiu, are eta kontu handiagoaz egiten da, xurgagailuaren eta jantziaren artean iragazki berezi bat jarriaz. Ondoren, ondo begiratzen da ezer josi, konpondu edo lotu behar den... dena eskuz, jakina», dio. Bukatzean, etiketatu egiten dute; jantzi bakoitzak zenbaki bat darama beren barruko artxiborako baliagarri izango dena jakiteko: jantzia nongoa den, nork eman dien, zein garaitakoa den...

Jantziak birritan plantxatzen dituzte. Lehenik, mahai gainean, eta gero, manikian jarrita, berriro, bertikalean. Hemen dator koska baina, manikiak ere moldatu egin behar dituztelako, garai bateko emakumearen gorputzak eta gaur egungoak ez baitute zerikusirik. Haien gerrak ikusita, emakumeak baino neskatoak zirela zirudien... horregatik ebakuntza estetikoak balira bezala, manikiak zerratu egiten dituzte trajeak behar bezala sar daitezen. Honek guztiak laguntzen du irudikatzen jantzi bat manikian jartzen denerako hartu duten lan guztia. Apirilean atsedena hartuko dute, eta maiatzean berriro ekingo diote hurrengo 30 jantzien aukeraketa eta prestaketari.

EUSKAL HERRIKO HERRI JANTZIAK

Lehenengo solairuko aretoan Euskal Herriko herri jantziak daude bilduta. Familia eta pertsona askoren eskuzabaltasuna nabarmendu du Mendiburuk, horri esker bildu baitituzte hainbeste altxor. Berezi Ipar Euskal Herriko iritsi zaien arropa kopurua aipatzen du. «Hobe to zaindu dute, baino ez hori bakarrik, garrantzi gehiago eman zaio ondare horri eta gorde egin dute, ardura hori izan dute zorionez. Hego Euskal Herrian, berriz, gona zaharrak ganaduarentzat manta modura erabili izan dira, edo erre egin dira, edo bota...». Arabatik ez dute ia ezer be-

Jantziak garbitzen eta lisatzen sekretu asko deskubritzen dira. Adibidez, soinekoak bularra emateko bereziki egindako irekiera duela. Etiketak ere argitu dezake non josia izan zen

Jantzien Zentroa asteburu eta jaiegunetan egongo da zabalik. Bisita gidatuak egiteko aukera ere izango da, baina horretarako aldezturik deitzea ezinbestekoa da (943 49 45 21)

rreskuratu, horregatik deialdia zabaltzeko aprobetxatu du, gantzetan begiratu dezatela eskatzeko, dio irriz.

96. urtean artxibategi, argazki eta beste bilduma batzuk aztertzean Iraultza dantza taldea konturatu zen gurea bezala «saldu diguten baserritar jantziak» ez duela errealitatearekin zerikusirik. Hein horretan, Segurako dantza txapelketak egin

duen ekarpen handia goraipatzen du, bertan ausartu zirelako lehen dantzariak Euskal Herrian jantzi ziren jantziak eramaten.

Gaurko begiradatik akaso arraroa egingo zaigu marrak, loreak eta koadroak konbinatzea, baina garai hartan hala egiten zuten arropa saltzen zuten dendak ez zirelako existitzen. «Etxean josten zuten arropa. Herriatik edo hiritik seme-alabak



Erronkari bailarako emakumearen jantzi tradizionala. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

ERRONKARIKO JANTZIA: EMAKUMEEN BALENTRIA ODOL GORRIZ TINDATUA

Lerro hauen alboan ikusten dena Erronkari bailarako jantzi tradizionala da, eta Jantzien Zentroak bere irudi korporatibo gisa aukeratu du dituzten jantzi eta piezen artean «kuttunena» dutelako, Ainhua Mendiburuk aitortzen duenez. Gertutik ikusita, bisitariak segituan ulertuko du zergatik: dotorea, bizia eta ikusgarria da.

Azaldu digunez, 1950era arte bailara osoan erabili zen, baina hots, ez edonork. Tradizioak agintzen duenez, jantzi ahal izateko emakumeak bai aita eta bai ama erronkariarrak behar zituen izan, eta berak ere, jakina, bertan jaioa izan behar zuen. Hala ez bazen, antzeko trajea izango zuen, baina ez berdina. «Odol garbia, %100 Erronkarikoa, izatea ezinbesteko baldintza zen». Beraz, ondoriozta daiteke mende batzuk atzera ikusgai dagoen jantzia eraman zuenak halakoa zuela odola.

Traje tradizionalaren pieza bakoitzak izena du, eta hala dago dokumentatuta. Kolore biziak ere halakoxeak ziren. Gorri indartsua buruko estalkian eta gaineko gona txikian. Honen azpian, moretik gertu dagoen urdin bereziko gona luzea. Bularraldean, berriz, urreak eta beltzak, eskuz egindako bordatuak eta borlak, gerruntzea ixteko. Eta beste jantzi askorekin gertatzen den bezala, ezkutuko pistak daude Erronkariko emakumearen egoera zibila ezagutzeko. Kasu honetan, mauka beltz eta luzeek aditzera ematen dute emakume ezkondua zela hau jantzi zuena; ezkongabeak alkandoraren mauka zuriak bistan eramango lituzke, alegia, ezkongabeak azpialdeko gerruntzea bakarrik eramango luke.

Erronkariko gizonezkoen jantziek ere salatzen zuten haien egoera zibila, galtzek albo banatan zuten irekieraren luzeraren arabera. Hala jakin zitekeen ezkondua, ezkongabea edo herriko alkatea zen.

Jantzia kondaira batek borobiltzen du. Antza denez, VIII. mendean, zehaztu gabeko egunez, Olast-eko Bataila jazo zen Esatik gertu. Erronkariko biztanleek borroka egin zuten musulmanen aurka eta buruzagia harrapatu zuten. Gizonak harekin zer egin eztabaidan ari zirela, jende taldetik atera eta emakume batek zuzenean burua moztu zion musulmanari. Mendiburuk dioenez, gonaren gorriak borrokan isuritako odola omentzen du.

etxera bisitan joatean azokatik erositako tela zatiak ekartzen zituzten, topatzen zutena; eta harekin egiten zituzten janzkiak, bukatu arte», azaltzen du.

Mantalak ere gonaren luzerakoak zirela dio; izan ere, babes-teko balio zuten, eta gona egitea baino merkeagoa zen mantala egitea, betiere etxean lanean aritzeko bazen –kalerako bazen bordatuak zituzten edo landuagoak izaten ziren–. «Ba al dakizu zergatik jasotzen zuten mantalaren muturretako bat gerrira?». «Etxean dago lanean emakumea, eta atea jo dio bizilagunak, baina mantala zikina du eta ez dira moduak atea irekitzeko. Horixe ba, muturra hartu eta jaso. Estali du zikindutako guztia, eta bizilagunak alde egindakoan zabalduko du berriro lanean jarraitzeko».

Txanbra onenak erromeriara joateko edo herrira jaisteko gordetzen zituzten, oinetakoak bezala. Etxean egoteko erabiltzen zituzten bakarrik larruzko abar-kak, kanpora irteteko oinetakoak edo gutxienez alpargatak. Beltzak baziren, galtzerdi txuriak; txuriak baziren, galtzerdi beltzak.

Jantzietako xehetasunek ematen dituzte gako asko, pistaren bat nork jantzi ote zuen, eta zein testuingurutan. Esaterako, blusoiak bordatuak edo detaileak baditu, pentsa daiteke tratularia zela gizona, feriaz feria ganadua saltzen aritzen zena. «Negozio gizonak ziren, eta itxura txukuna erakutsi behar zuten».

Buruan jantzen zutenaz, berriz, gizonak txapela oso txikia eta kolore beltzekoa. Emakumeek berriz zapia, eta kolorearen arabera jakiten zen haien egoera zibila. Zuria, ezkondua; beltza, alarguna; eta koloreduna edo ilea bistan, ezkongabea.

HOWARD GAZTELUA ETA KORTSEAK
Gure herriko jantziak atzean utzita goaz eskaileretan gora, atzerriko herrialdeetako arropaz goatzera. Aldaka estuak, kortseak estututa soinekoan kabitzen ez diren bularrak eta dirudun gizon dotoreak imajinatzea erraza da.



Goian, garai ezberdinetako jantziak. Eskuinekoa Donostian erositakoak izan ziren, baina plantxatzean etiketa aurkitu eta Bilboko Posta kaleko Simeon Sobrevila tailerrean josia izan zela deskubritu zuten. Alboan, Donostiako kasinoan jokatzeko fitxak.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

UKITU PROBATU, GOZATU!

«Museo bizia» izatea nahi du Iraultza dantza taldeak, eta horregatik, sei hilabeteko egongo diren erakusketekin batera hilero tailerrak, hitzaldiak edo bestelako jarduerak antolatzea da asmoa.

Dinamikoa izango da, eta publiko ahalik eta zabalenari eskainia. Adibidez, harreran bertan Euskal Herriko jantzi originalen kopiak jarri dituzte, bereziki ikusmen arazoak dituzten pertsonen ukitu ditzaten. «Kortsea gogorra dela esaten dugunean zertaz ari garen ulertzea nahi dugu», dio Mendiburuk.

Ukitu eta jantzi. Goiko solairuan armairu eder bat dago, eta sekretu bat gordetzen du: jantzi eta ispiluaren aurrean jolasteko jantziak josi dituzte, garai haietan bezala sentitzeko.

Gorri biziko gonak, pentsatu ohi denaz beste, barruko jantziak ziren. Gainera jartzen zena harrotzeko baliatzen zituzten emakumeek

Errenteriari ‘Manchester txikia’ deitzen zioten zegoen fabrika kopuruagatik. Herrian ekoiztutako produktuak daude ikusgai, baina gehiago berreskuratu nahi dituzte pixkanaka



Bigarren aretoak moda bera erakusten du; alegia, historiaren enbatek jantzietan izan duten eragina. Pieza zaharrenak soineko bat eta gizonezko baten trajea dira. 1770 urtekoak dira, eta jatorria York konderrian dute, Howard gazteluan bizi ziren duela ia hiru mende jabeak. Ez da pelikula bat, baina badirudi. «Kasualitatez topatu genuen, Londreseko Portobello azokan. Han denetatik topa daiteke eta bueltatxo bat ematen ari ginela, arropa saltzen ikusi genuen gizon bat. Jakina, guk badakigu saltzen dena ona den edo ez... Ezin sinetsi hura ikusi genuenean. 'Zer ari da saltzen?', esaten genion elkarri harrituta», gogoratzten du Mendiburuk.

Gizonak interesa zutela ikusita, bere etxera gonbidatu zituen gainerako bilduma ikustera. «Bildumagile pribatua zen, eta zer ez zuen bere etxean. Gau hartan bertan joan ginen, eta soinekoa erosi genuen. Urtebetera bueltatu ginen gauza gehiagoren bila».

Gaur egun, kontatzen duenez, Internetek ate asko zabaltu ditu halakoak erosi ahal izateko. Gehienak Ameriketako Estatu Batuetatik lortzen dituzte, eta bigarren eskuko atarietan araka-

tzen dute. Batzuetan zuzenean erosten dute, besteetan Internet bidezko enkanteetan, baina beti ez dute lortzen nahi duten hori, asko balio duten piezak baitira.

Garai hartakoa da, kontatzen duenez, ileorde erraldoiak eramateko joera: «70 zentimetro neurtzera ailegatu ziren, eta osagarri pila batekin apaintzen zituzten, baina azkenean debekatu ere egin zituzten, gazteluetako lanpara eta kandlekin su hartzen zutelako. Gizonak zein emakumeak margo zuriz makilatzen ziren. 'Harreman arriskuak' ikusi duen edonork gogoratuko ditu hasierako bost minutuak». Mendibururen aburuz, filmak ezin hobeto jasotzen du garai hori nolakoa zen eta nola prestatzen ziren.

Emakume sufragisten garaia ere ekartzen du gogora museoak. Hauentzat, txapelak ezinbesteko osagarri ziren, eta apaintzeko disekatutako txoriak erabiltzen zituzten

XVI. mendeko jantziak lortzea oso zaila dela diote sustatzaileek. Beraiek behintzat ez dute ezer topatu. Grabatu eta argazki zaharrei esker ikertzen dituzte igarotako garaiak

Lerro hauen gainean, emakumeen osagarriak: eskularruak, diru-zorroak eta ostrukaren lumekin egindako abanikoak, besteak beste. Alboan, Bordelen jatorria duen zoko hamarkadako soinekoa. Pertsona batek hilabete osoa eman du harritxoak ondo josita daudela egiaztatzen.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS



Beste gauza askoren artean, deigarria da emakumearen gorputza moldatzeko historian zehar erabili diren kortse motak, baita gona gero eta gehiago harrotzeko azpian jartzen zituzten egiturak ere. Ezin arnasa hartu; Mendiburuk aipatu digu luzarotan emakumea gizonezkoaren osagarri zela, eder eta apain prestatzen zen osagarria, betiere goi mailako klase eksklusibo haietan, alegia, jantziek iradokitzen duten klase horietan.

Scarlett O'hara pertsonaia ere ekartzen du gogora soineko batetik. Oheari nola heltzen zion, zerbitzariak gehiago eta gehiago estutu zieziaion kortsea. Mendiburuk baieztatu digunez, dokumentatuta dago estutu behararren beharraz saihestu-hezur loka apurtzeraino iritsi zen emakumerik bazegoela.

Kortsearen estutasuna aldatzen joan zen, baita gona harrotzeko merinake delako egituren

zabalera ere. 2,5 metroko diametroa neurtzera ailegatu ziren, eta emakumeak eseri ahal izateko sofa bereziak egin ziren...

Zorionez, ailegatu ziren garai hobeak. 20ko hamarkadarekin emakumeak bizitzaz gozatzen hasi ziren, tabernan nahiz kasinoan ibiltzen ziren, eta erre eta edan egiten zuten. Soinekoak ez ziren gehiago kartzela izan, eta oihalarin ederrekin apaintzen zuten beren burua. Harriak banan-banan josiak, distirak, mugimendua duten oihalak... eta paradoxikoa dirudi baina, jantzi berrienak izan arren, topatzen zailenak dira. «Hain direnez delikatu eta finak, ez dute denboraren joan-etorria ondo jasan», dio Mendiburuk, tamalduz.


Donostiako kasinoan jolasteko fitxak, ukondoraino heltzen diren eskularru finak eta takoiak harribitxiz estalita dituzten zapatak... nola aldatu ziren (diren) garaiak.



Ainara Azpiazu
AXPI

iRRITZIA:

DESKONEKTEAK



ESKOLA-JANTOKIAK

Urduñako Udal Sukaldea, EAEko eskola-jantokien gatazkan kapitulu berri bat

 **JENDARTEA** / Ion Salgado

2009. urtean Urduñak, trantsizio agroekologikoaren bidean eta tokiko sistema garatzeko helburuarekin, Udal Sukaldea proiektuari ekin zion, adinekoen egoitzari eta eskolari zerbitzua emateko. Zortzi urte igaro dira eta ikasleek ezin dituzte sukalde horretan prestatutako elikagaiak jan, Lakuako Osasun Sailak baimenik ematen ez duelako.

Martxoaren 31n Urduñako ikasleak eta horien gurasoak kalera atera ziren, eskolako jantokian bertoko elikagaiak jan nahi dituztela aldarrikatzeko. “Bertan ekoiztu, bertan prestatu eta bertan jan!”; lema hori zuen egin-

dako kalejirak; helburua: Udal Sukaldea defendatzea. 2009. urtean, trantsizio agroekologikoaren bidean, eta tokiko elikadura garatzeko helburuarekin, proiektu horri ekin zion Urduñako Udalak. Tokiko beharrak eta baliabideak aztertu ondoren, sukalde baten beharra zegoela ikusi zuen Udalak. Adinekoen egoitzak su-

Urduñako guraso eta ikasleak kalera atera ziren martxoaren 31n, Udal Sukaldea proiektua babesteko.
L. JAUREGIALTZO | ARG. PRESS

kaldea zuen, baina herriko eskolak ez. Sukalderik gabe, eskolako jangela zerbitzua aldatzea ez zen bideragarria. Hainbat alternatiba aztertu ondoren, eskolatik bost metrora dagoen adinekoen egoitzako sukaldea behar berrietara egokitzea pentsatu zuen.

Horretarako, Gasteizko Gobernuak Osasun Sailak esanda, egoitzako sukalde instituzionala berreraiki behar zuten, sukalde zentral bat izateko. Hala, 2010ean ekin zion lanari Urduñako Udal Sukaldea kolektiboa –Udala, Garapen Agentzia, baserritar elkarteak, saltoki txikiak eta eskola-komunitatea–.

Hala, administrazioak eskatutako pauso guztiak eman ondoren, diru laguntza publikoen birtartez, sukalde zentrala eraiki zen. Alabaina, Ekoizpen zerbitzuko kide Marijo Imazek azaldu duenez, adinekoen egoitzari soilik ematen dio zerbitzua; es-



kolari ez, ordea. Hezkuntza Sailaren baimena lortu dute, baina orain Osasun Sailak bere garaian onartutako proiektua atzera bota nahi duela salatu du Imazek.

Gurasoek idatzitako oharra dioenez, «bidea egiten hasita dago; adinekoen egoitzan eskaintzen diren otorduak aldatu dira. 2015eko martxotik, adinekoek otordu ekologikoak egiten dituzte, baina Urduñako Herri Eskolako neska-mutilek, gure seme-alabek, ezin dute herriak elkarlanean aurrera ateratako proiektu honen parte izan. Eskubide hori ukatzen zaie».


«Proiektu honekin elikadura hobetzeaz gain, tokiko ekonomia eta lanpostuen sorrera bultzatu nahi da, lehen sektorean, bai eta zerbitzuetan ere. Bertan ekoiztutako jakiak, bertan prestatu eta jan ahal izatea baino ez dugu eskatzen», nabarmentzen dute gurasoek, Osasun Sailaren ezezoaren arrazoen berri ez dutela gaineratuta. «Ez dakigu zergatik ezin dugun Udal Sukaldea erabili», kexatu da Cristina Santacruz gurasoen elkarteko kidea.

GAUR8k Osasun Sailari arazo honi buruz galdetu ostean, egunak pasatu dira inolako berririk jaso gabe. Lakuak ez du erantzun. Antza denez, catering enpresa handiek bete behar dituzten neurri berak ezarri nahi dizkio Urduñako Sukaldeari. Esaterako, jakiak eskolara eramateko furgoneta bat izatea exijitzen du Osasun Sailak. Hori ere salatzen dute Bizkaiko udalerririk honetako auzokideek.

PROIEKTU PILOTUA

Urduñako eskola Hezkuntza Sailak abian jarritako proiektu pilotu baten barruan dagoela gogoratu beharra dago. ENEEKek urtarrilean GAUR8n argitaratutako artikulua batean gogora ekarri zuenez, aldarrikapen askoren ondoren, Hezkuntza Sailak lau ikastetxetan proiektu pilotuak abiaraztea onartu zuen 2013an, eta 2015ean erabaki zuen zeintzuk izango ziren eskola horiek.

2015-2016 ikasturtearen bukaeran hasi zen Markina-Xemeingo Beko Benta ikastetxeko su-



Ikasleek ezin dute Udal Sukaldean prestatutako janaria jan, Lakuak baimentzen ez duelako.

Luis JAUREGIAITZO. | ARGAZKI PRESS

kaldea funtzionamendu berriarekin. Ikasturte honen hasieran, Gernika-Lumoko Allende Salazar ikastetxeko sukaldeak ere bide horri ekin dio, 630 ume-erentzako menuak prestatuz. Eta datozen hilabeteetan espero da Urduña eta Laukarizeko eskolajantokiak ere martxan egotea. Kasu guztietan tokiko elikagai ekologikoek protagonismo handia dute menuetan.

Atzera eginda, 2000. urteko martxoaren 22an eskola sare publikoko jantoki zerbitzua arautzen duen Agindua onartu zen arte, ehunka eskolatako sukaldeetan inguruko baserritarren eta dendarien produktu freskoak erabiltzen ziren. Agindua ezarri zenetik, aldiz, kudeaketa zuzenaren erudia da aukera bakarra: hau da, Hezkuntza Sailak aukeratutako zazpi catering enpresetariko bat jantokiaren kudeaketa osoz arduratzea.

«Egunero 10.000 menu baino gehiago prestatzeko, ulergarria izan daitekeenez, catering enpresok lehengai kopuru izugarriak erosten dizkiete banatzaile handiei, prezio 'lehiakorragoak' lortuz aldi berean. Logikoa, operatibotasunaren ikuspegitik. Zentzu gutxikoa, tokiko ekonomia eta nekazaritzari begiratu-ta», azaldu zuen ENEEKek, lehengai freskoagoak erabiliz gero menuek kalitate hobea izango dutela nabarmenduz.

Sistema ere gardenagoa izango litzateke; izan ere, iaz Lehiaren Euskal Agintaritzak 18 milioi euroko isuna ezarri zien Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoetan jantoki zerbitzua emateko kontratua izan duten zortzi enpresari, prezioak adosteagatik. Lehiaketan zerbitzua lotetan banatuta dago eta Agintaritzak frogatutzat jo du, gutxienez hamar urtean –2014ra arte–, zigortutako zortzi enpresek lote guztietan lehiatzeari uko egin ziotela horiek banatzea bermatzeko. Jardunbide horri esker, enpresa horiek lote bereko eskoletako jantoki zerbitzua bereganatzen zuten, prezio garestiagoan.

Hauek dira Lehiaren Euskal Agentziak zigortutako zortzi enpresak: Auzo Lagun, 6.108.446



«GURE PLATERA GURE AUKERA» EKIMENA

Eskola-jangelak kudeatzeko EAEko ikastetxe publikoetan egun indarrean dagoen araudia aldatzeko borrokan dabilzan eragileak «Gure platera gure aukera» ekimenean batu dira. «Ekimen hau osatzen dugun taldeok eskola-jangela osasuntsu, bertako, justu eta hezitzaileak aldarrikatzen ditugu. Horretarako, aldaketak proposatzen ditugu, eskola-jangela espazio integral eta integratzailea izan dadin eta ez bakarrik sukaldaritza 'zerbitzu' bat. Landa-eremu bizia eta lehen sektorea sartzearen aldeko apustu politikoen laguntzarekin egin behar dira aldaketa hauek. Eskola-jangelek duten balio pedagogikoa berreskuratzea nahi dugu eta gure seme-alaben elikadura gure inguru eta kulturarekin bat etortzea», azaldu du Lurdes Imaz Ehigeko koordinatzaileak.

Gaur egungo egoera kritikatzeko, eta Lakuak martxan jarritako proiektu pilotuaren gabeziak nabarmentzen ditu. «2014an Legebiltzarrak eskatu ziona ari da martxan jartzen Hezkuntza Saila: eskola-jangela bertako produktuekin kudeatzeko lau esperientzia pilotu. Bi jarri dira martxan eta beste bi falta dira. Tamalez, errazena izan behar zena ari da arazo gehien topatzen. Aspaldi egon beharko lirateke Urduñako eskola publikoko ikasleak udal sukaldean prestatzen diren bertako jaki ekologikoak jaten. Ipintzen ari diren trabek ez dute zentzurik», gaineratu du, eta indarrean dagoen araudia aldatu beharra dagoela dio, gaur egungo beharretara egokitzeko.

euro; Cocina Central Goñi, 522.879 euro; Cocina Central Magui, 775.827 euro; Eurest Collectividades, 6.640.713 euro; Eurest Euskadi, 135.497 euro; Tamar Las Arenas, 1.108.347 euro; Gastronomía Cantábrica, 1.626.662 euro; Gastronomía Vasca, 1.546.226 euro.

Jantokien polemika sortu ostean, Iñaki Lazaro-baster EH Bilduko legebiltzarkide ohiak eskola-jantokien zerbitzua arautzen duen sistema hobetu beharra zegoela nabarmendu zuen. Hain zuzen, ikastetxe bakoitzak zerbitzu hori ematen duten enpresek «zuzenean negoziatzeko aukera» izan beharko lukeela defendatu zuen.

«Haur eta gazteen elikadura garrantzitsuegia da, berau mozkin ekonomikoa lehen helburu duten enpresa erraldoi batzuen esku uzteko. Hala, gure asmoa da eredu osasuntsu, gertuko eta bidezkoagoak abian jartzeko aukera izatea, eta erakunde publikoetatik eredu horiei babes osoa ematea», gaineratu zuen Lazaro-basterrek, eta 2014. urtean gaur egun martxan dagoen proiektu pilotua proposatu zuen.

Egitasmo hori bultzatzeko, datozen asteetan EH Bilduk proposamen berri bat eramango du Gasteizko Legebiltzarrera. Eva Lopez de Arroyabe legebiltzarkidearen esanetan, proiektu pilotua gaur egun «geldirik dago». «Proiektu hori partxe bat izan zen, eta Lakuak ez du bete», salatu du.

Koalizioaren ustez, eskola bakoitzak nahi duen gestio sistema aukeratu beharko luke, inposiziorik gabe. «Guztion artean lan egin behar dugu aurrera egiteko, urratsak egiteko. Lan-mahaiak sortu behar ditugu parte hartzen duten agente ezberdinekin arau berri bat adosteko. Eta guk janaria eskoletako jantokietan presta dadila defendatuko dugu», azaldu du Lopez de Arroyabek, haurrak jantokian ere hezten direla ohartaraziz.

Gurasoen parte hartzea ezinbestekoa da, ENEEKek dioenez, proiektu pilotuetan haurren elikaduraren kontrola berreskuratzen baitute gurasoek. Guraso elkarteak jantokiaren kudeaketa osoaz arduratzen dira: menuak sasoian sasoikora moldatzeaz, hornitzaileak aukeratzeaz eta le-

hengaien erosketaz, sukaldarien prestakuntzaz, baita jantokiko zaintzaileak kontratatzeaz ere. Sukaldariak Hezkuntza Saileko langile izaten jarraitzen dute.

Eta proiektu pilotuak arrakastatsuak izateko baldintza garrantzitsua da kudeaketa ekonomikoki bideragarria izatea. Horrenbestez, egitasmo guztien betebeharra da kostua menu bakoitzeko 4,60 eurotik ez igotzea. Tarte horretan jantokiko zaintzaileen nominak, garbiketarako produktuak eta lehengaien gastuak sartzen dira, baita erantzukizun zibileko aseguruaren kontratazioa ere.

Iaz Lehiaren Euskal Agintaritzak 18 milioi euroko isuna ezarri zien EAEko eskola publikoetan jantoki zerbitzua ematen duten zortzi enpresari, prezioak adosteagatik.

2000. urteko araua onartu zen arte, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ehunka eskolako sukaldeetan inguruko baserritarren eta dendarien produktu freskoak erabiltzen ziren.

Lau ikastetxek parte hartzen dute Lakuak martxan jarritako proiektu pilotuan.
G. GARAILADE | ARG. PRESS



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Ikasi ez da eskolan soilik egiten

Eta benetan sinistu eta gure gain hartuko bagenu gure ikasleek ez dutela soilik eskolan ikasten; edo zehatzago esanda, neska-mutilek ez dutela bakarrik eta eskusiboki gugandik, hezitzaileongandik, ikasten; ez dituztela soilik guk irakatsitakotik bereganatzen jakintza eta ikaspenak, alegia?

Ikasleek eskolan soilik ikasten dutelako ideia hori izan da, akaso, tradizionalki ezagutu dugun eskolaren oinarria. Horregatik, jakintza bat ikasle guztiei memento berean eta era berean irakasteko ahalegin horren bueltan antolatu dugu eskola. Bizitzari begiratuz gero, ordea, eskola da leku bakarra pertsona guztiek, denek, memento berean gauza bera egiten dutena.

Helburua erdiesteko ezarri ditugu adinka antolatutako ikas-taldeak, eskola curriculumak, mailako eta ziklotako helburuak, ikasgaika antolatutako programak eta, azkenik, denak guk aurreikusitako mailara heldu eta guk ezarritako eduki minimoak bereganatu dituztela egiaztatzeko ebaluazio sistema osoa eraiki dugu.

Ikerketak eta eskarmen-tuak, ordea, beste gauza bat esaten ari zaizkigu behin eta berriro: ikasleek ikasi eskolan eta, batez ere seguruenik, eskolaz kanpo kalean eta etxean aurkitzen dituzten testuinguru anitzetan eta teknologia berriek eskaintzen dizkieten ingurumarietan ikasten dutela. Guk uste baina gehiago, azkarrago eta sakonago, gainera.

Zientziaren hainbat diziplinatatik aztertu eta ikertu dute pertsonak nola garatzen garen eta nola eskuratzen ditugun bizitzarako behar ditugun trebetasunak eta jakintzak. Zientifikoki frogatuta dago naturak espezie gisa programatu gaituela bizirauteko eta aurrera egiteko behar ditugun garapen etapa guztietatik pasatzeko.

Ondorioz, haurrek berez ikasten dute. Ez da gure meritua, ez uste dugun bezainbestekoa, bederen. Hortaz, eta ikerketei kasu eginez, garapenean gutxitasunik edo arazorik ez badago, behintzat hitzaren zentzu zabalenean, eta barne biltzen dituen alde guztiak kontuan izanik-, ezinezkoa dirudi haurrek ez

ikastea. Eta ikasteko eskolara joan behar dugula ideia kolokan geratuko litzateke, bai, gutxienez, tradizionalki eskolari eman diogun funtzio eta antolaketari begira, behinik behin.

Naturak programatutako garapen-aldietatik pasatu ahal izateko, munduratzan denetik haurrak duen arma nagusia jakin-mina da. Zenbatetan, baina, egiten ote dute talka haurraren jakin-minak eta eskolak eskaini eta exijitzen dionak ikasle guztiei jakintza bera eman eta eskatzeko egitekoan?

Era berean, eta jakintza guztiak memento berean eskaintzeko egitekoari begiratuko bagenio, horrek haurraren erritmoarekin talka egiten duela onartu beharko genuke. Izan ere, nola interesa dakioke gauza bera denei une berean?

Gero, ebaluazio sistema oso bat eraiki dugu neurtzeko, ikasleek guk ikastea nahi genuena eman diegun denboran bereganatu duten ala ez aztertu eta kalifikatzeko.

Beraz, pentsatzen hasita, eta zientziak dioenari kasu eginez, hezitzaile gisa geure buruari jarritako helburua –ikasle guztiei une berean ikasgai bera eskaini eta eskatzea–, erdietsi ezinekoa litzateke. Bidenabar, neska-mutilen aniztasuna eta erritmoen errespetua leku ez oso duinean uzten ariko ginateke.

Naturaren kontrako eta bide inposibleak diruditen horiek baztertu beharko genituzke. Ikasleak pertsona bakar eta errepikaezin gisa errespetatu eta ezinezko ahalegin horiek gure hezitzaile burua aterabiderik gabeko lekura ez eramateko, frustrazioari iskin egiteko.

Hortaz, arrazoizkoa dirudi lehenbailehen eskola beste era batera pentsatzen hastea. Eta arlo horretan urrats berriak ematen ari direnei begira, ikusiko dugu eskola bizitzeko toki gisa pentsatzen hasi direla. Non eskolara joaten garen guztiok (neska-mutillak, hezitzaileak, etxekoak, herritarrrak) gure jakin-mina asetzen lagunduko digun espazio bat eraikiko dugun, norberaren jakin-minari eta erritmoari eutsi ahal izango diona eta errespetatua sentituko dena. •



Haurrek berez ikasten dute, eta ez eskolan bakarrik.

J.MANTEROLAJ A.PRESS

{ koaderno } Laura Mintegi

Lau apunte armagabetzeaz

Artikulu hau orain astebete idatzita dago, urrunera joan aurretik. Baliteke tarte horretan armagabetzearen inguruan albiste garrantzitsuren bat egotea, baina, ondoren zergerta ere, apirilaren 8koak berebiziko garrantzia du izatez.

Lau aspektu azpimarratu nahi nituzke armagabetzearen inguruan: protagonistak, koiuntura, eskenatokia eta errelatoa.

Protagonistak. Ram Manikkalingam ez dabil oker diotenean ez dagoela aurrekaririk euskal kasuarekin parekatu daitekeenik. Konbentziturik nago armagabetzeaz mintzatzen denean “euskal era” aipatuko dela hemendik aurrera desarmatzeari buruzko analetan. Euskal Herrian inbidiaz begiratzen genion gizarte katalanari independentziaren alde egiten ari den erakustaldi sendoagatik. Orain badakigu zergatik ez zen posible hemen lortzea han lortzen zutena: gai bat pendiente genuelako, kolektibo gisa, eragozten ziguna erantzun kolektibo masiboa ematea soberaniaren gainean, gatazkaren gaia konpondu gabea izan artean.

Koiunturak garrantzia izan du: hiru euskal erakundeak euskaraz mintzatzen dira; hegoaldean ez dago alderdien arteko lehia elektoralik hiru urtean; Frantzia, ordea, hauteskunde presidentzialen bezperan daude; Espainiako Gobernuak ez du gehiengo nahikorik eta laguntza behar du; eta euskal gizartea apurka-apurka hasi da barneratzen bere esku hartu behar duela alderdiek egin ezin dezaketena.

Eskenatokia. ETak Frantziari eman dizkio armak, ez Espainiari. Frantzia ez da Espainia. Frantzia asmatu zuten demokrazia (horretarako gillotina jarri behar izan bazuten ere plaza publikoan). Egun V. Errepublika dute eta euskal alderdi guztiek konplizitate sarea ehundu dute, Mankomunitatearen inguruan lehenik eta Foro Sozialaren inguruan ondoren.

Espainian, ordea, XIX. mendean 200 matxinada edo errebolta militar egon ziren; 100 urtean bost konstituzio ezberdin sortu ziren; II. Errepublika odoletan ito zuen diktadura batek (Europa osoko diktadura luzeena, hain zuzen, Portugalekoaren ondoren), eta III. Errepublika inoiz ez da heldu. Ez da kasualitatea armagabetzea Ipa-

rraldean burutu izana. Hegoaldean atxilo hartuko zituzten 172 artisauak. Eta egia bada zortzi baino, 12 zulo zirela, sumatzekoa da Hegoaldean daudela gainerako zuloak. Ea nor arriskatzen den haietara hurbiltzen.

Errelatoaren bataila aspaldidanik ari gara ebazten, 2011ko urritik baino lehenagotik seguruen. Baina apirilaren 9an letra larriz hasi da idazten egunkariaren azaletan. Titular neutroena “Berria” egunkariarena izan da, «Armagabetu da ETA», eta “La Vanguardia”-rena ere bai, «*ETA entrega su arsenal a las autoridades francesas*».

Gainontzekoek balorazio argia egin dute, zentzu batean ala bestean. GARaren titulutik, «*Jornada histórica que cambia el modo de afrontar el conflicto vasco*», “La Razón”-eraino, «*ETA: sin justicia no hay fin*». Tartean, antzerako errelatoa ñabardura gutxirekin: «*ETA entrega las armas a cambio de nada*» (“El Correo”), «*ETA escenifica su derrota sin épica*» (“Deia”), «*Desarme sin épica*» (“Diario

Nire irudiko, armagabetzearen sakoneko interpretazioa egin eta egiatan muinera jo dutenak balizko garaileak dira, nor baino nor tristeago azaldu direnak. Argi eta garbi esan dute zergatik sentitzen diren galtzaile

de Noticias”), «*ETA certifica su derrota*» (“El País”), «*ETA se rinde*» (“El Mundo”), «*Burla de ETA en Bayona: solo desvela 8 zulos con 120 armas*» (“Abc”) eta «*El País Vasco pone fin al siglo XX. Rendición*» (“El Periódico”).

Nire irudiko, ordea, armagabetzearen sakoneko interpretazioa egin eta egiatan muinera jo dutenak balizko garaileak dira, nor baino nor tristeago azaldu direnak. Bateatik, Zoido Barne ministroak esan du armagabetzea ez dela garrantzitsua. Benetako garrantzia du ideologiak desarmatzea. Eta ildo beretik jo du Covitek esatean ETaren beste armak desarmatu behar direla, horien artean «in-punitatea, historia faltsutzea eta proiektu politikoa». Eta horretan asmatu dute. Argi eta garbi esan dute zergatik sentitzen diren galtzaile nahiz eta militarki irabazi: ETak galdu du bataila militarra; proiektu politikoa, baina, inoiz baino indartsuago dago, kalean eta erakundeetan. •

«Burujabetza politikoa nahi duen herri batek energia ereduaz hausnartu behar du»

Burujabetza energetikoaren aldeko hautu garbia egiten du Xabier Zubialdek. Eredu al daketarik egiten ez bada egoerak okerrera egingo duela eta pairatu ditugun krisiak gero eta larriagoak eta sarriagoak izanen direla nabarmentzen du. Energia eskuratzea gero eta zailagoa eta gero eta garestiagoa da, baina kontsumoak gora egiten du etengabe. Txalapartak argitaratu duen “Hacia la soberanía energética. Crisis y soluciones desde Euskal Herria” liburuan gai honen gainean azken urteotan bildutako gogoe-tak biltzen ditu. Azaleko neurrietatik harago joan beharra dagoela azpimarratzen du.

Burujabetza energetikoa. Hitz potoloak dira. Zertaz ari gara esamolde hori erabiltzen dugunean?


Arlo guztietan bezala, abizena kendu ahal dugu. Burujabetza energetikoa; abizena kentzen baldin badiogu, izenarekin gelditzen gara: burujabetza. Burujabetza energetikoa, burujabetza elikaduran, burujabetza politikoa... Burujabetza kontzeptua eremu energetikora aplikatzea izango litzateke. Kasu honetan, gehiegi sakondu gabe, baliabideak nork kudeatzen dituen edo nork hartzen dituen erabakiak kontuan hartzen da. Eta badaude irizpide etiko batzuk ere. Ez dira irizpide ekonomikoak soilik: ondorioak, kalteak, alternatibak...

Askotan, hitzaldietan galdera hori egiten didatenean, argi eta garbi esaten dut Francoren garaian orain baino burujabetza energetiko handiagoa genuela. Zalantzarik gabe. Hor daude datu guztiak. Francoren garaian Nafarroan elektrizitatea sortzeko 60ren bat errota zeuden. Publikoak edo kolektiboak ziren. Herritarren errotak ziren. Sortzen zen elektrizitatea beraiek

XABIER ZUBIALDE ENERGIAN ADITUA

Energia arloan erabakitzea oinarri izango duen eredu baten alde lan egiten du Xabier Zubialdek, egungo oligopolioen kontrola gaindituz

Martxelo Diaz Aristizabal



saltzen edo kudeatzen zuten. Garralda Aezkoan, Bakaiku Sakanan, Garesen... Nafarroan toki ugaritan zeuden. Gaur, berriz, batzuek amets egiten dute ea lortzen dugun horretara hel-tzea. Goiener kooperatiba, adibidez, horrelako adibideak lortzen saiatzen ari da. Ametsa da gaur egun, baina lehen horrelako 60ren bat genituen.

Aurrerabideak kasu batzuetan atzera eramaten gaitu.

Horregatik aipatzen dut Francoren garaiko hori. Horrela izan da errealitatea. Azken urteotan izandakoari begiratuta, aldiz, oligopolioak baino ez dira azaltzen. Eskatzen duguna inbentatuta dago. Energia burujabetza gero eta gutxiago dugu gure artean.

Oligopolioak aipatu dituzu. Azken finean, energia iturrien jabetza giltzarria da. Ez dago burujabetzerik energia esku gutxi batzuetan badago.

Bai. Zaila da eredu energetikoa azaltzea. Eta hori ez da kasualitatea. Apropos egiten dute zaila izatea. Nire ustez, gauzak askoz ere errazagoak egin ahal dira. Hainbeste urte pasatu ondoren eta hainbeste jende horrelako oligopolio batean lan egin ondoren, gero eta zailagoa da. Ezin da kasualitatea izan, kausalitatea da. Konplexua da azaltzeko, baina alde batetik Euskal Herrian dauden baliabide energetikoak daude. Gure kasuan ez dira asko. Bertzetik, kudeaketa dago. Energia motei buruz hitz egin ahal dugu, baina garrantzitsuagoa da kudeaketari buruz aritzea. Nahiz eta gasa edo petrolio erabili nork hartzen ditu erabakiak? Nork kudeatzen du eredu? Zein erabakirekin? Zein interesekin? Jabetza klabea da. Adibide itsusi bat erabiltzen ohi dut hausnarketa sortzeko. Pentsazazu Castejon bezalako herri batean. Zentral termikoa dute. Gasa erosten dute Aljerian edo Errusian. Erretzen dute gasa. Kutsadura sortzen da puntualki herri batean, oso kontzentratua. Aljerian eta Castejonen. 400 megawatt ekoizten dute. Energia eredu bera erabiltzen

badugu –gasa erretzea elektrizitatea sortzeko– baina 400 zentral txikirekin, bakoitza megawatt batekoa, elektrizitate kopuru bera sortzen dugu baina 400 tokitan, Nafarroan. Publikoak edo kolektiboak izanen balira eredu oso desberdina izango litzateke. Hasteko, erabakiak jendarteak hartuko litzuke. Edo erakunde publikoek behintzat. Bertzalde, Castejonen sortzen diren kalteak banatu egiten dira. Ondorioak oso desberdinak dira kasu horretan. Ez dira sortzen beste helburu batzuk. Produktzioa kontsumitzaileengandik hurbil dago. Ez dira tentsio altuko sare erraldoiak behar elektrizitatea Alemanian saltzeko. 400 instalakuntza horiek elektrizitate beharra egonez gero baino ez lirateke martxan jarriko. Eredu oso desberdina da, nahiz eta egun Aljeriatik ekartzen dugun gas bera erabiliko genukeen.

Tomatearen adibidea aipatzen duzu maiz, gaur egun eredu jasanezin batean murgilduta gaudela irudikatzen.

Metafora bat da, baina jendartearen beharra eta kontsumoa desberdintzeko balio dezake. Jendarte guztietan behar berberak ditugu. Ume batek hemen, Ameriketako Estatu Batuetan edo Afganistanen behar berak ditu: janaria, jostailuak... Kontua da jendarte bat nola antolatzen den pertsona baten beharrak asetzeko. Kontsumitzen duguna desberdina da hiru kasuetan, baina beharrak berdinak dira. Kontsumoa behar horiek asetzeko antolakuntza izango litzateke. Euskal herritar batek pozik bizitzeko orain behar duena eta duela 40 urte behar zuena desberdinak dira. Ez zuen smartphonerik edo internetik behar. Tomate gorriarena antzekoa da. Lehen, neguan ez zen jaten eta orain egunero eskatzen dugu. Jendarte bezala eskatzen duguna aldatu egin da. Zein da antolamendua, abenduan mahaian tomate gorri bat izateko? Marokon edo Malagan sortzen da, petrolioz egindako negutegi batean, petroliotik ekoiztutako fitosanitarioak era-

biltzen dira, baldintza oso txarretan dauden etorkinak ari dira hor lanean merkeago atera dadin, kamioi batek hartzen ditu tomate guztiak eta milaka kilometrorera eramaten ditu, egunak pasatzen direnez agian tomatea transgenikoa izango da azal gogorragoa izateko, logistika gune batera eramaten dituzte, gero hipermerkatu batera, haraino autoz joaten gara... Tomatea mahaian dugu, baina ez gara ohartzen egin duen bide luzeaz. Eta erdi txantxetan esaten dudanez, “ekologistak” garen zakarrontzi aurrean banderaja nola birziklatu behar den zalantzan egoten gara. Metafora honetan ikusten da jendarteak eskatzen duen hori dela arazoa. Eredu energetikoak jendarteak eskatzen duena ematen du. Asko kostatzen zaigu ispilu aurrean jartzea. Jendarte honek eskatzen duena tomatea izateko hori da.

Eredu jasangarriago batean logikoagoa izango litzateke neguan Nafarroako kardua jatea eta tomate gorri hori udarako uztea.

Esate baterako. Hori da esaten ari naizena. Euskal Herrian kontsumo energetikoaren bilakaerari begiratzen badiogu, urtetik urtera hazten ari dela ikusiko dugu. Eraginkortasuna, energia berriztagarriak eta abar aipatzen dira azken urteotan. Nahiz eta eraginkortasuna garatu, kontsumoa hazten ari da. Esate baterako, kamioi batek tomatearen mila kilometro horiek egiteko behar duen gasolioa orain dela hogeitau urte baino gutxiago da. Bonbillek ere energia gutxiago behar dute. Baina zer gertatzen da? Gero eta energia gehiago erabiltzen dugula tomate bera ekoizteko. Bide guztia gero eta luzeagoa delako. Urtez urte gauzak ekoizteko bide guztiak gero eta luzeagoak dira. Hori da izan dugun garapena. Zatitxo bat neurtzen badugu, kamioi batek ehun kilometro egiteko behar duen gasolioa, gutxiago erabiltzen dugu. Baina ez dugu prozesu osoa neurtzen. Orduan, jendarte bezala, gero eta energia gehiago kontsumi-



Argazkiak: Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

«Datozen hiru urteotan krisi ekonomikoaren bigarren olatua izango dugu, kontsumo energetikoarekin lotura zuzena duena»



tzen ari gara. Soilik eraginkortasunarekin ezinezkoa izango zaigu joera aldatzea.

Garapen ekonomikoaren eta barne produktu gordinaren (BPG) hazkundera etengabe gora doaz eta horrek gero eta energia gehiago eskatzen du. Hori ere aldatu beharreko beste kontzeptu bat izango litzateke eredu jasangarriago bat lortzeko.

Euskal Herrian eta munduan orokorrean azken urteotan gertatu dena aztertzen badugu, kontsumo energetikoa gorantz doala ikusten dugu. Eta, aldi berean, BPGa ere gorantz doa. Batera doaz beti, gutxi gorabehera. Ez da kasualitatea. Oso garrantzitsua da hori ulertzea. Jendarte eredu BPGaren menpe dago. BPGa %2 edo %3 igo-tzen bada urtero, gauzak ondo doazela diote. BPGa, berriz, energia kontsumoaren menpe dago. Ezin da banandu. 2005.

urtetik hona argi dago ezin dugula orain arte erabili izan dugun energia kantitatea erabili. Ez mundu mailan ez Euskal Herri mailan. 2008tik aurrera ikusi da krisi ekonomikoa, baina azpian krisi energetikoa zegoen. Etorkizuna 2008. urtean hasi zela esaten ohi dut. Horrelakoa izango da gure etorkizuna. Energia ez da merkea eta eskuragarria. BPGak batzuetan gora eta besteetan behera egingo du. Krisi ekonomikoa sintoma da. 2008an gure jendartean sentitu genuen, petrolioaren prezioa oso altu zegoelako eta menpekotasuna handia delako. Orain petrolioaren prezioa oso merke dago hemen eta arnasten dugu, makroekonomian. Beharbada, kalean ez da hainbeste nabaritzen. Baina krisi ekonomiko hori petrolio saltzen duten herrietara joan da, Venezuelara. Ezagutu izan dugun krisi ekonomikoa ez da desagertuko. Han edo hemen izango da.

Gatazka horiek gero eta maizago gertatuko direla aurreikusten duzu. Energia eskuratzea ez da hain erraza, baina urtetik urtera gehiago behar dugu.

Horrexegatik aipatzen dut burujabetza politikoa nahi duen herri batek horrelako hausnarketak batzuk egin beharko lituzkeela etorkizunean horrelako loturak apurtu ahal izateko.

Krisia delakoan Nafarroan energiaren kostuaren igoerak suposatu duena egin diren murrizketa sozialen adinakoa izan da. Horrek argitzen du zein tamainakoa den arazoa eta zein eragin duen gudan.

Bai, hori da 2009, 2010, 2011 eta 2012an gertatu zena. Ikusten dugu energiaren kontsumoa lehen aldiz historian mantendu eta pixka bat jaitsi zela krisi ekonomikoarekin eta BPGaren beherakadarekin lotuta. Halere, jendarte bezala ordaindu genuen prezioa urtero 400 eta pi-

ko milioi hazi zen. Izan ziren murrizketen aldekoa. Hori Nafarroan. Gertatu zena itzalean dago, ez gara konturatzen. Kasu honetan, Nafarroako energia-fakturaz ari gara; guztion artean, enpresak barne, energiaren truke ordaintzen dugunaz.

Beraz, eredu aldaketa hori premiazkoa da. Horrelako krisi berri bat etortzen bazaigu, eta etorriko dela diozu, berriro garai horietan jasan genituen murrizketen antzekoak izango ditugu.

Euskal Herri mailan urtero 9.000 milioi euro ordaintzen ditugu guztion artean. Esango nuke aberastasuna sortzeko aukerarik hoberena energia aurreztekoa dela. Zalantzarik gabe. Bestetik, menpekotasunaren kontzeptua dugu mahai gainean. Berriro gertatzen baldin bada horrelako krisi ekonomiko bat, horrelako egoera batean egongo gara berriz eta ez dugu tresnarik izango ezer egiteko. Ezin izango dugu egoera hori kudeatu. Eskatzen digutena ordaindu beharko dugu. Eta ez dute aldatu nahi. Zoritxarrez, nire ustez, datozen hiru urte hauetan krisi ekonomikoaren bigarren olatua etorriko zaigu. 2018. urtea aipatzen ari naiz mintzaldietan, baina datozen hiru urte hauetan etorriko zai-gula segurua da. Zergatik? Aurreko krisiaren antzeko baldintzak sortzen ari direlako munduan zehar. Aztertzen badugu energia kontsumoa munduan zehar etengabeko hazkundera gertatzen ari da. Lehen olatutik hona ez da ezer egin. Ez da pausorik eman aldaketak egiteko norabidean. Berriz azalduko digute krisi ekonomikoa dela, baina itzalean kontzeptu hauek guztiak izango ditugu: menpekotasuna, kontsumo energetiko oso altua... Horregatik behin eta berriz nabarmentzen dut jendarte eredu BPGaren hazkundetik banandu beharko genukeela. Etorkizunera begira inportantea da dagoe-na nola banatu behar den aztertzea, lana adibidez, baina era berean hori nola egiten den aztertutik behar da, errezeta berri



bat behar dugu. Irudika dezagun pastel bat, euskal pastel bat. Pastela nola banatu erabaki behar da. Orain arte goitik behera eta eskuinetik ezkerreara egin da. Hobe litzateke behetik gora eta ezkerretik eskuinera egitea. Baina beste errezeta bat asmatu behar dugu pastela egiteko. Ezin dugu jarraitu erreze-ta berberarekin.

Berriztagarriak aipatu izan dituzu, baina oso kritikoa zara horiekin. Arazoa ez dutela konpontzen aipatu duzu. Berriztagarrien kopurua handitzen badugu baina eredu aldaketan ez bada, ez dago aurrerapausorik. Kritikoa naiz. 17 urte daramatzat berriztagarriekin lanean

«9.000 milioi euro ordaintzen ditugu energiagatik urtero Euskal Herrian. Aberastasuna sortzeko aukerarik onena energia aurreztekoa da»

eta agian alor hori barnetik ezagutzen dudalako naiz kritikoa. Ez dut ezer berriztagarrien kontra, alderantziz, aldekoa naiz. Amorratua. Baina denetatik dago berriztagarrien munduan. Abiapuntu bezala ezagutzen dugun jendarte eredu berriztagarriekin ezin dela mantendu hartu behar dugu. Ezin da. Kito. Eraikin bat soilik berriztagarriekin bizi ahal den galdetzen badidazu, baietz erantzungo nizuke. Baina jendarte bezala ezin dugu. Tomatearen bidea ezin da berriztagarriekin garatu. Hori da arazoa. Ezin da; beraz, lasai nago alde horretatik hori esateagatik.

Berriztagarriak komunikabideetan azaltzen diren modua-

rekin harrituta nago. Nafarroan mota guztietako berriztagarriak izan ditugu: indibidualak edo kolektiboak; publikoak eta pribatuak; zentralizatuak eta kalte askokoak eta sakabana-tuak eta kalte txikikoak; etikoa eta espekulatiboak. “Berriztagarri” hitzak ez du gehiegi esaten. Abizena jarri behar dugu; kasu honetan bai; zein motatako berriztagarria den jakiteko. Besteak beste, maila global batetik hitz egiten badugu, Nafarroan izan dugu egoera nahiko berezia Europan zehar. Bagenuen EHN izeneko enpresa bat eta Nafarroako Aurrezki Kutxa genuen. Enpresa finantzario bat eta berriztagarrien munduan Europan zegoen enpresa aurreratuenetakoa. Eta zer gertatu zen bi kasu haue-tan? Desagertu egin dira, diru publikoa esku pribatuetara joan da. Lotsagarria da. Eta berriztagarriekin egin da. Hor daude errota guztiak. Ze eredu bultzatu nahi dugu? Nafarroaren kasua oso gordin da. Orain entzuten badituzu Madril-en egin dituzten proposamen zenbait, berriztagarriak garatzeko enpresa publikoak sortu behar direla diote. Hemen izan dugu, baina politikoki bultzatu izan den eredu kritikagarria da.

Askotan marketin berderako erabiltzen dira, ereduan aldaketa sakonak ez egiteko aitzakia gisa.

Noski. Beste adibide bat aipatzen dut, I+G+I delakoa. Politikagintzan «I+G+I-ren alde gauden» edo «I+G+I bultzatu behar dugu» eta halakoak askotan entzuten ditugu. Egunero esaten dituzte. Baina I+G+I zertarako? Ikerketa, garapena eta inbertsioa, baina zertarako? Hemen ere abizena behar dugu. Norabidea inportantea da. Baina ez dute esaten. Ideologikoki ez dira markatzen ez berriztagarriak ez I+G+I. Zertarako nahi ditugu? Garraio publikoa bultzatzeko edo autoa gehiago erabiltzeko? Autoak gutxiago kontsumitzeko ala autoak sei edo zazpi urtean zahar geratu eta beste bat erosteko?



IKUSMIRA

ONENEAN ERE, ITXAROPENARI EUTSI BEHAR

Hil-hurren dagoenak bere azken egunak etxeko-
en artean emateko komenigarritasunaz ebazten
duten bitartean, Euskal Herriko edozein bazterre-
tan euskal preso politikoaren eskubideak etenga-
beko aldarria dira, bereziki larri gaixorik daude-
nen askatasuna. Egokitasun politikoak besterik
xedatu artean, Oier Gomezek espetxe-ospitaleko
ziegan bere gaixotasunarekin bakarrean segituko
du. Joan den asteazkeneko auzi saioaren ondoren
itxaropentsu agertu ziren Oierren senideak eta



Luis JAUREGIALTZO eta Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS

haren abokatua, eta hala beharko luke edozein amaren seme-alabak. Hala daude gehienak Eus-
kal Herrian behintzat. Astelehenean jakinaraziko du Parisko Zigorrek Betearazteko Auzitegiak
bere erabakia eta, onenean ere, itxaropenari eutsi beharra egongo da, itxaroten jarraitu, alegia,
asteazkenean Oierren aurkako euroaginduen etetea aztertu arte. Ordiziako Artzain Egunean Al-
de Zaharra bete zuten ardi soraioek ere ez lukete ulertuko astelehenean erabakitakoa asteazke-
nean atzera botatzea. Eutsi, itxaropenari, goiari. Xabier Izaga Gonzalez

Biratu zure gorputza alde batera, era sotil eta suabea, aldakak hainbeste ez nabaritzeko. Hankak pixka bat zabaldu, gehiegi ere ez; sabelaldea ez da hainbeste nabaritu. Hanka bat aurreraxeago jarri, horrela zango luzeak eta estilizatuak lortuko dituzu. *Xelebritiek* hori egiten dute alfonbra gorriaren gainean. Esku bat jarri gerrian edo aldakan, eskuekin zer egin ez dakitenean modeloek erabiltzen duten sekretua da.

Jarri dezagun, luzatu sorbaldak atzerantz, modu horretan aldakarekin lerro zuzena osatzen da eta gure sabela ere barrurantz sartuko da. Hanka bat bestearen aurretik gurutzatu, baina modu pinpirinean. Aurreko oinean tentsiorik jarri ga-

be, giharrak behartu gabe, oin hori bera aurrera begira jarri eta gorputzaren karga ipurdian. Bizkarrez jarri, sorbalda bat atzerantz duzula eta besoak pixka bat zabaldua.

Eskuko poltsa bati eutsi eskuetan, esku-besoek postura naturala izango dute eta zure gorputzaren zatiren bat estaltzeko aprobetxatuko duzu. Kokotsa bular aldera eramanez, horrela zure lepoak ez du denbaina zabalago emango. Eserita zaudenean hankak paraleloan jarri eta inoiz ez, sekula ez, behin ere ez gurutzatu.

Pentsatzen ariko zarete hori guztia zertarako den, nonbait. Ea yoga egiten hasi naizen edo ze demontre. Ba ez! Argazkietan pinpirin, lirain eta lerden azaltzeko aholkuak dira. Aldizkari batean irakurri

berri ditut aholkuak. Izenburua zehazte aldera, hauxe zioen: «Argalago emateko 10 postura». Ez argazkietan modu naturalean azaltzeko aholkuak. Modu naturalean esan nahi baita: argalago. Adibide bezala hamar emakume argal azaltzen ziren, argazkietarako propio prestatuta, noski.

Ez naiz argazkietarako kameraren aurrean jartzea atsegin duen horietakoa. Nire loditasuna beti agerian geratzen dela iruditzen zait. Ez dut jakiten nola jarri, ispiluaren aurrean bezala. Behin lagun batek nire ispiluko islari atera zion argazkia, mundu honetan gehien beldurtzen ninduten bi gauzak uztartuz: ispilua eta argazkia. Kameraren klixk-az gain, nire barruan ere zerbaitek klik egin zuen. •

Palestinako presoak greban

Koldo Sagasti

Pasa den apirilaren 17an, Presoetako Elkartasun Egunean, gose greba kolektiboari ekin zioten Palestinako espetxeratuek gutxieneko giza eskubideak aldarrikatzeko. Erregimen sionistaren presondegiatan dauden 6.500 palestinaretatik 1.600ek iragarri dute bat egin dutela deialdiarekin. Barruak oinarritzko eskakizun batzuk dituzte: senideen bisitak jaso ahal izatea; arreata mediku egokirako eskubidea; barkarte neurriak baztertzea; eta atxilotze administratibo erregimena bertan behera uztea, alegia, gatibuari leporatzen zaizkion balizko krimenak jakinaraz diezazkitela, eta epaitua izateko eskubidea onar diezaiotela. Presoen afera garrantzi

handikoa da Palestinako gizartearen; izan ere, azken 50 urteotan 850.000 palestinarrak pasatu dira Israelgo ziegetatik, populazioaren %20 eta gizonezkoen %40; eta ondorioz, gizarte osoa zuzenean edo zeharka ukitzen duen gatazka da presoena. Baina espetxe-eskubideez gain, badago protestaldiari lotutako beste aldarrikapen bat: bertan behera gera dadila segurtasun arloko hitzarmena Israel eta Palestinako Aginte Nazionalaren artean. 1993ko Osloko Akordioetan Israelek behin-behineko aginte autonomoa onartu zien palestinarreri eremu historikoaren azaleraren %12 eskas batean. Ondorengo hogeitaz urteotako ibilbideak erakutsi du erakunde horrek eremu ho-

rietan okupazioa kudeatzeko lana egin duela, eta okupatzaileen autoritatea bermatzeko. Egun, aginte palestinarraren eginkizun nagusia okupazioaren aurkako erresistentziari erasotzea eta indargabetzea da. Elkarlan horren emaitza izan da, besteak beste, Basil Al-Arajen erailketa. Apirilaren 17an, hain zuzen, 40 egun bete dira armada okupatzaileak, PANen inteligentzia zerbitzuen laguntzaz, ezkerreko aktibista eta intelektuala exekutatu zuela. Grebalariek elkartasun deia zabaldu diote munduko gizarte zibilari, eta horri atxikitzeko modurik onena Israelgo kartzelak erresistentziako ekintzailez betetzen ari den autoritate palestinarra kolokan jartzen hastea da. •



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Elikatzeagatik kutsatzera (eta kutsatuak izatera) kondenatuak?

Egungo elikadura-sistema globalak pozoï kimikoekiko menpekotasun ikaragarria daukala gauza jakina da. Gizateriak, elikatzeako orduan, industria agrokimikoarekiko duen menpekotasuna, agian, ez da horren gauza jakina. 2016az geroztik, mundu mailako pestizida eta plagiziden merkaturaren %65 agrokimikoen hiru konglomeratu erraldoiek kontrolatzen dute: Monsanto-Bayer, Dow-Dupont eta Syngenta-ChemChina. Aldi berean, multinazional hauek hazien merkaturaren %61 kontrolatzen dute. Milaka milioi euroko merkatu honen ekuazioa argia da: enpresa hauen intereserako da pozoï kimikoen menpeko diren hazien garapena eta merkaturatzea, horrek ekarriko baitu gerora milioika tona pozoïren salmenta. Haatik, duela mende erditik darabilten argudioa, gizateriaren elikadura bermatzeko agrotokikoen ezinbestekotasuna, alegia, gero eta zalantzarriagoa da. Baita Nazio Batuen Erakundea (NBE) bezalako organismo garrantzitsu baten iritziz ere.

Iragan martxoan, NBEren Elikadura Eskubiderako kontalari bereziak agrokimikoen erabilera erabat zalantzan jartzen duen dosierra aurkeztu zion erakundearen Giza Eskubideen Kontseiluari. 28 orrialdeko dokumentuan (A/HRC/34/48 kodea duena), puntuz puntu ezbaian jartzen du pestizida eta plagiziden ezinbestekotasuna. Ez dauka lerro bakar bat ere sobera txostenak. Bibliografia zabal batean oinarrituta, kritika oso gogorak egiten dizkio, bai agrokimikoen industriari, baita estatuen jarrerari ere, hauek industriaren interesekiko erakutsi ohi duten menpekotasuna azaleratuz. Horiek horrela, besteak beste, TTIP eta tankerako hitzarmenen onurak zalantzan jartzen ditu, mota honetako akordioek nazioarteko legediaren lausotzea eta giza-eskubideen urraketari bidea zabaltzea dakartela adieraziz, merkataritzaren eta garapen ekonomikoaren izenean, eta ingurumenaren zein gizakion osasunaren kaltetan.

ELIKADURA ESKUBIDEA ETA OSASUN ESKUBIDEA

Gizateria elikatzeako pozoï kimikoen eta hazi transgenikoen erabilera ezinbestekoa delako sutsuki defendatzen dute nekazaritza



GAUR8

arलो multinazionalek. Horretarako, beraien botere ekonomiko ikaragarria baliatzen dute iritzia sortu, politiken definizioan eragin eta substantzia hauen erabilerari mugak jartzea oztopatzeko orduan. Horrela, agrotokikoen erabilera ikaragarri hazi da azken bost hamarkadetan. NBEren txostenak adierazten duenez, ordea, uzta galerak ez dira gutxitu. Ezta munduan dagoen gosetuen kopurua ere. Ekoizpena handitu bada ere (estimazioen arabera, gaur egun gizateria 1,5 aldiz elikatzeako adina elikagai ekoizten dira) 800 milioi gosetu daude munduan. Banaketa da arazoa, ez elikagai kopurua.

Kontalariak txostenean azpimarratzen duenez, baina, elikadura-eskubidea ez da urratzen den bakarra agrotokikoen erabilera masiboarekin. Osasun eskubideari ere erasotzen diote. Adibide lazgarriena iraungita edo herrialde garatuetan debekatutak izan diren substantzia da: garapen bidean dauden herrialdeetara esportatzen dira, han legedia lausoagoa delako.

Gerora, prestakuntza nahikoa edota babes neurri egokiak ez dauzkaten baserritarrek erabiltzen dituzte. Ondorioa: 200.000 hildako intoxikazio akutuen eraginez urtero, %99 txirotutako herrialdeetan. Beste kontut bat da plantazio industriaren ondoan bizi diren komunitateek pairatzen dutena: Argentinako soja transgenikoaren plantazioen ondoan bizi direnak glifosatoarekin airez fumigatuak dira. Costa Ricako banana-plantazioen ondoan bizi diren umeek pestizida-maila oso altuak dauzkate gorputzean; Indiako Kerala estatuan, anakardoaren plantazioetatik gertu, gaixotasunak eta heriotzak oso ugariak dira, endosulfan plagizida arriskutsuarekin lotutakoak. Antza, plantazioen ondoan dauden komunitateetako ezigaitasun tasa estatu osoan dagoena baino %73 handiagoa da.

Egunero jateko zortea daukagunon osasun-eskubidea ere kaltetua dago, NBEko kontalariaren esanetan. Pozoïen eraginen behar bezalako azterketa ez dela egiten salatzen du, ezta substantzia ezberdinen

konbinazioak dauzkan ondorioenak ere. Agrotokikoen presentzia dute gure elikaduran, kopuru txikietan izanda ere, eta ondorioak zenbait hamarkada beranduego azaltzen dira.

Ingurumenean eta honek eskaintzen dizkigun zerbitzu ekosistemikoetan agrotokikoen dauzkaten eragin lazgarriak ere argitara dakartza txostenak: gure lurretan eta gure uretan daude. Esaterako, Txinako nekazaritza-lurren %20 betiko galdua dago, pozoïen kutsadura dela eta. Agrotokikoei egozten zaio ere erleen beherakada ikaragarria (azken 25 urteetan, Ameriketako Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan erlauntzen %50 desagertu dira eta ustea da honen arrazoi nagusia plagizida neonekotoideak direla). Izan ere, plagizidek, izurria eragiteaz gain, izurriari aurre egin diezaioketen bestelako intsektuak, hegaztiak eta abar kaltetzen dituzte, menpekotasuna areagotuz. Ez dago sobera aipatzea erleek eskaintzen diguten zerbitzua ordainezina dela: beraiek polinizatzen dituzte gizakion elikadura osatzen duten 100 laboreetatik 71.

AGROEKOLOGIA, AUKERA BAKARRA

Bukaerako gomendioetan argi eta garbi adierazten du txostenak, epe luzeko plantamendu bat egingo bada, nekazaritza industrial eta monolaborantzaren erudia baztertu, eta agroekologia ezartzea beharrezkoa dela. Horixe bera zioen 2013an NBEren “Trade and Environment review 2013. Wake up before it is too late” txosten mardulak. 300 orrialdeetan zehar ondorioztatzen dena da nekazaritza-sistema goitik behera eraldatzea ezinbestekoa dugula, klima aldaketari, ingurumenaren kaltetzeari, gizakion osasunari eta herrialdeen arteko desorekari muga jarriko badiogu. Eta hori egin beharra dago lehenbailehen. Ekoizpen lokala eta ekologikoa zabaltzea eta ekoizpen horren tokian tokiko kontsumoa sustatu eta ezartzea egungo eta hurrengo belaunaldien giza eskubideak bermatzeko modu bakartzat jotzen ditu NBEk. Etorkizuna eta agroekologia eskutik helduta datoz.



Txusta, ohi bezala, purua ahoan. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

infraganti JOXE AGUSTIN IRIONDO «TXUSTA»

Futbol profesionala utzi ondoren, kartzelara bidean jaio zitzaion alaba nagusia. Urte askoan Txustaren taberna bertsolarien eta beste hamaika kolektiboren bilgune izan zen. 1981eko otsailean, Joxe Arregi ikusi zuen Madrilgo DGSan. Bizirik ikusi zuten azkenetakoa da.

Abel Enbeita bertsolariak behin eta berriz aipatu zuen bere lagun Joxe Agustin Iriondo orain aspaldi ez dela, GAUR8rekin solasean. Arabako beste hainbat bertsolarik ere izan zuten hizpide

herrialdeko bertsolaritzaren bilakaeraz jardutean. Halaber, Arabako Txapelketako finalaren aurkezpenean gogoratu zuten. Jende askok ez bide daki nor den Joxe Agustin Iriondo, baina *Txusta* esan orduko, haren irribarre puru batez hornitua gogoratuko zaie.

Gasteizko Alde Zaharreko sarrrerako plazatxo batean gaude goiz hozkirri bateko bederatzietan. Paseoa atzerarazi diogu, baina txangoaren ostean, egunero bezala, GARA irakurriko du, erdarazkoa taberna batean, «Amparo [Lasheras], Antonio Alvarez Solis...», eta gero, etxean, euskarazkoa, patxadaz. «Niri batua irakurtzea kosta egiten zait, horregatik uzten dut etxerako, baina bai, zuei ere irakurtzen dizuet». Emakume batek agurtu du. Parean dagoen gozotegira doa, ogia erostera. «Gozo-denda horretan Gasteizko txokolaterik onena dute», dio Txustak. Mendaroar batek esanda, argudio zorrotzak behar dira kontrakoa esateko. Izan ere, Txusta Mendaron jaio zen 1943an, Garagartza auzoan, hain zuzen. «Elgoibarko udalerrian zegoenean, eta ibaiaz bestaldeko auzoa, Azpilgoeta, Mutrikuko udalerrikoa zen. Nire karnetea, baina, Mendaro agertu da beti». Ez omen du Mendaroko oroitzapen askorik, bost urterekin etorri baitzen Gasteizera gurasoekin, amamarekin eta bi anaiekin. Gazte-gaztetatik, zazpiren bat urte zituela, hasi zitzaizkion Txusta izengoitiaz deitzen; lehena etxetik gertuko taberna bateko nagusi Bizentek. Eta 67 urte igarota, ez daki zer dela-eta izengoiti hori. «Euskara den ere ez dakit. 'Txustarra' edo 'zuztarra' bai, baina 'txusta'...».

Abel Enbeitak eskatuta bere taberna Gasteizko Bertso Eskolaren egoitza bihurtu zuen garaia gogoan, «guardia zaharra» aipatu du: Xabi Rico, Rikardo Gonzalez de Durana, Txipi eta Txerren Ormaetxea, Serapio Lopez... Baina baita gazteagoak ere, hala nola Ruben Sanchez, Asier Otamendi eta Oihane Perea gaur egungo txapelduna. Zenbait belaunaldi igaro dira Txusta tabernatik edo, zehatzago, Kirolak tabernatik, hala baitzuen izena taberna hark, inork erabiltzen ez bazuen ere. Beste herrialdeetako bertsolarientzat ere erreferentzia izan zen Gasteizen. Batzuek, bertan bizi izandakoek, oso maiz bisitatu zuten, hala nola Andoni Egañak eta Jon Maiak, baina beste asko ere igaro ziren bertatik, «famatuenak eta ez

hain famatuak», Abel Enbeitaren hitzetan, «Arabako bertsolaritzaren epizentroa» baitzen. Hamaika saio, bertso afari eta bilera egingo zituzten han. Eta amama Luisa, Txustaren ama, bertsozalerik handiena zela zioen Abelek. Baietz dio Txustak, «ahal zuen guztietan, hara igozten zen bertsoak entzutera».

Bertso afariez gainera, bestelako ospakizun ugari egin izan dituzte Txustaren tabernan. 1980an, Tximist enpresak babes-tutako espedizioak Everesteko gailurra zapaldu zuen egun berean, Txustaren eraman zuten enpresara iritsitako telegrama, Martin Zabaletak eta Pasang Tembak gailurra zapaldu zutela zioen. Kartel bat jarri zuen Txustak tabernako horman: «Euskadik Everest hartu du!». Espedizioa Euskal Herrira itzuli zenean Txustarenean afaltzen izan ziren kide guztiak, balentria hura ospatzeko. «Akordutzen naiz, bai, han izan ziren denak, Lorente, Rosen, Zabaleta...».

PARRANDA, KULTURA ETA KONSPIRAZIOA

Bertsolariena ez zen hara biltzen zen kolektibo bakarra, ordea. Besteak beste, komunikazio modu ezberdin baten alde lan egiteko asmoz, 1983ko abuztuan Hala Bedi irratia sortuko zuen gazte talde batek bilera ugari egin zituen. Halaber, hara bildu izan ziren langabeen asanblea, sindikatuak, hainbat enpresatako grebalariak... Ospakizun, kultura eta konspirazio gune izan da beti, beraz, taberna hura. Txustak hartu baino lehen, Gasteizko Amnistiaren Aldeko Batzordeek zuten tabernaren ardura, finantziario iturri gisa, eta Txustak eta bere kuadrillak lagundu egiten zuten. 70eko hamarkadaren bigarren erdian, Batzordeek taberna utzi eta Txustak hartu zuen. Gogora etorri zaio Euskal Herri osoko ekologistak bertara bildu ziren eguna. Tabernaren goiko aldean, batzar gela gisa erabili ohi zuten jantokian, 120 lagun ziren. Halako batean, Poliziak taberna zegoen kalea itxi zuen. Hainbat polizia tabernara sartu ziren, bonba abisu bat jaso zutela esanez. Bezeroei dokumentazioa eskatu zieten, baita



Gaurko paseoa atzeratuta, Gasteizko Alde Zaharreko eserleku batean. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

sukaldean zeudenei ere, tartean Txustaren emazte Begoñari, eta hiru gazte eraman zituzten atxilo. Txustari galdetu zioten ea goiko solairuan inor zegoen, eta Txustak ez zekiela, ezetz uste zuela esan zien. Ez ziren igo, eta alde egin zuten.

Poliziak ondo ezaguna zuen Txusta aspalditik, 1968an espetxean izan baitzen ia urtebetez. Gasteizko Bake kaleko kartzelan egun batzuk eman ondoren, Carabanchelgora eraman zuten. Harako bidean zela jaio zen Ainhoa, Txustaren hiru seme-alabetan lehena, eta hango zuzendariak eman zion berri ona: «*Ha sido usted padre, entra con buen pie*». Aurrerago, ETako presoak gose greban zirela, haien ordezkari joan zen Txusta zuzendari harekin hitz egitera, baina solasak ez omen zuen luze iraun, Txustak mahai gainean ukabilkada bat jo eta altxatuta bukatu baitzen bilera.

Antzera amaitu omen zen hurrengo urtean Gasteizko gotzain Francisco Peraltarekin bildu ze-

nekoa. Euskal presoek zihardute-la, «terrorismoaz» hitz egiten hasi zitzaion gotzaina, baita damututa al zegoen galdetu ere, eta Txustak bertan behera utzi zuen bilkura. Ama haserretu egin omen zitzaion, fededun amorratua baitzen. Amama Luisa egunero joaten omen zen meztalara... Pilare Egunean izan ezik.

Edonola ere, Txustak gizon onberaren ospea izan du beti, eta jende guztiarekin izan ditu harreman onak, baita apaizekin ere. Beti ere ziria prest, ordea, behin batean Gasteizko eliza bateko parrokoarekin erakutsi zuenez. Txusta beti bezala purua ahoan ikusita, errietan hasi zitzaion apaiza, txantxetan. «Niri medikuak ez dit erretzea

debekatu, behintzat, zuri ez bezala», esan zion Txustak. Hala zela aitortu zion apaizak, baita zigarro paketea erakutsi ere, erdi agortuta, egun berean erosi zuen arren. Eta esan zion aginduta zeukala hildakoan hilkutxan berekin kartoi bat Ducados sartzeko. «Eta metxeroa?», galdetu

zion Txustak. «Hara, hori ahaztuta neukan», erantzuten hasi zen apaiza, baina bukatu baino lehen Txustak bota zion: «Lasai, zoazen lekuan ez duzu behar izango, betiko sua izango duzu eta». Apaiz baten ahoan ez kontatzeko moduko erantzuna jaso omen zuen Txustak. Joxe Agustin Realekoa da. «Beti. Baina ez Athleticen aurkakoa, e?». Ez omen du ulertzen talde

1980an Everesteko gailurra zapaldu zuen Tximist espedizioa Euskal Herrira itzuli zenean, Txustarenean afaltzen izan ziren kide guztiak, balentria hura ospatzeko

Kalabozoetatik, galdekatzeko, bigarren edo hirugarren solairura igo zutenetako batean, lurreko koltxoi bati erreparatu omen zion. Haren gainean etzanda, gizon bat: Joxe Arregi

baten aldekoa izateko beste baten aurkakoa izan beharra. Realekoa lehenengo, baina «ni euskal talde guztietakoa naiz». Alavesekoa bigarrenik, jakina, bertako jokalaria izan baitzen. 1961ean fitxatu zuen Alaveseko gazteen taldeak, 18 urterekin; gero erreregionalean jokatu zuen, eta handik lehen taldera pasatu zen, bigarren mailan zegoela. 23 urterekin utzi zuen futbola. Jokalari ona zela dio harekin jokatu zuen edo zelaian ikusi zuen «gazte jendeak»; hala ere, berak dioenez, ez zuen asko jokatu. Futbolari ona baina parrandazalea ere... «parrandazale hobe», dio berak.

Hurrengo urtean, Begoña Lopez de Munainekin ezkondu eta urtebeteren buruan, esan bezala, alaba nagusia Txusta kartzelara bidean zela jaio zitzaien. Baina bi seme-alaba gazteek ere izango zuten aita kartzelan ikusteko «aukera». 1981ean, aurreko eta ondorengo urteetan bezala, atxilotetak eguneroko ogia ziren. Urte hartako otsailean ETako komando bat erori zen Madrilén, eta Euskal Herriko zenbait lekutan, besteak beste Gasteizen, atxilotetak izan ziren. Madrilgo DGS Segurtasun Zuzendaritza Nagusira eraman zituzten atxilotuak, haien artean Txusta. «Oso gogorra izan zen hura», dio Txustak aurpegiera goibelduta. Kalabozoetatik, galdekatzeko, bigarren edo hirugarren solairura igo zutenetako batean, lurrean zegoen koltxoi bati erreparatu omen zion. Haren gainean etzanda, gizon bat: Joxe Arregi. «Pentsa nola zegoen, ez zuten kalabozoetara ere jaisten». Carabanchelgo kartzelara sartu zirenean, han ziren presoek ukabilak gora eta «Eusko gudariak» abestuz hartu zituzten. Sartu berriek, harrituta, preso berriak sartzen zirenetan abesten zutela pentsatu omen zuten. Artean ez zekiten Arregiren heriotzaren berri. Txustari aspaldiko lagun batek esango zion, Abel Enbeitak, hain zuzen.

Xabier Izaga Gonzalez



Maria Gonzalez Gorosarri
EHUko irakaslea

Egia ofizial berria

Asteazkenean, apirilaren 26an, faxistek Gernika bonbardatu zutela 80 urte izango dira. Espainia-ko Reina Sofia Museoan Picassoren «Gernika» margolanak 80 urte egingo dituela informatu berri du TVE-k. Urteurren horri buruzko albistean TVE-k ez du 1936ko gerra aipatu, ezta ere herri-tarrak Gernikan (Otxandion, Eibarren, Elorrion, Durangon, Bilbon...) bonbardatu izana azaldu.

Espainian, Kroazian eta Portugalen, gainera, erlijio katolikoa faxismoarekin lotuta egon da. Azken bi herri horietan faxismoa goraipatzea delitua den bitartean, Espainiako Estatuak eta Eliza katolikoak faxistak eurak gorai-patzen jarraitzen dute. Eliza katolikoaren zaintzapean, Francisco Franco eta Jose Antonio Primo de Rivera lurperatuta daude (Erorien Haranean). Sevilla hartu zuen Queipo de Llano genozida bortxatzailearen eta bere emaztearen gorpuak hiri horretako Macarena elizan ohorez zaintzen dituzte. Euskal Herrian ere bai:

• «*Las Carmelitas Descalzas abandonan la villa [Durango], siguiendo los pasos*

de las Agustinas hace poco más de medio año: Como ocurre en muchos otros casos, el convento tiene su propio cementerio donde descansan los restos de las religiosas fallecidas en las últimas décadas. Junto a éstos también se encuentran los de Esteban Bilbao [...]» («El Correo», 2009/09/09).

Esteban Bilbao ministro frankista durangarra lurperatuta zegoen Durangoko elizatik 2011n desagertu zen. Udalak haren berririk izan ez zuela adierazi zuen. Espainiako Auzitegi Nazionalak erreklamatu bazuen ere, Bilbao gizateriaren aurkako krimenengatik erantzulea zela-ko, bide ofizialak ez du haren hilotzaren berririk eman, ezta Estatuak zein Eliza katolikoak haren gorpuren zaintzan gastatutako diru publikoaren berririk ere.

Faxismoa gaitzetsi ez duen herrian bakarrik «garai historikoa» kontsideratzen dute. Faxismoak ideologian, sexuan edota erlijioan oinarritutako gorrotoa sortzen du. Horrela, aurkariak sortzen ditu. Gernika eta gainerako herriak erre izana antifaxistei leporatzea (Berlingo Reichstag-eko kupularen antzera), Europako faxismoa boterera hel-
tzeko estrategia izan zen.

Nazioartean Gernikako erasoa faxis-
tei leporatzean bat eginik, Espainian egia ofizial berria zabaldu da. Dagoene-
ko ez da «gorriek erre zuten» bertsioa, baina inposatu den egia ofizial berriak gezurraren haziak baditu. Gernika bon-
bardatzeko helbururik ez zegoela diote eta «alemanei edo italiarrei» eskua joan zitzaiela ondorioztatzen da, bertsio errebisionistak faxisten helburua Errenteriako zubia zela dielako:

• «Ataque a Gernika» («El Correo», 2013/12/12).

• «Errenteriako zubia: Batzar Etxearekin eta arma lantegiarekin batera, zubi txiki hau herriko bonbardaketaren helburu militar izan zen 1937an. Bitxikeria gisa, hiru hauetako bat ere ez zen bonbardaketan txikitua izan». («Ezagu-tu Gernika», Gernika-Lumoko Udalaren webgunea).

Bertsio horrek ez du azaltzen zergatik, Alde Zaharra bonbardatu eta gero (eta ez, zubirik edo Batzar Etxerik), Gernika-ri sua eman zioten. Errenteria zubia ez zuten erre. Gernikarrak fusilatu zituzte-nean, ez zuten zubirik fusilatu. Argi da-
go helburu militarra jendarte zibila zela: faxistek gernikarrak hil gura zituztelako.

Oroimen historikoa berres-
kuratzen dabilzan mugimenduek alderdi politikoek landu ez zuten auzi politikoa-ri erreparatu zioten: faxismo-ari aurre egin ziotenei merezi duten errekonozimendua ematea. Oroimen historikoak jendartearen oniritzia jaso du; errekonozimendu soziala ba-
duela argi dago. Errekonozi-
mendu instituzionala jendar-tearen bultzadekin etorriko da. Horrenbestez, gertatuta-
koa ukatu eta gero, hiltzaileak identifikatu ez direnean, egin-
dakoarengatik erantzukizunik eskatu ez bazaie, logikoa diru-
di TVE-k «Gernika» margolana bonbardaketarekin lotu ez izana. Ziurrenik, buruzagi po-
litikoen jokabidea da logiko ez dena. •




«Gernika» artelanak 80 urte beteko ditu, Gernikako bonbardaketak 80 urte beteko dituelako.

GAUR8


BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA

1935EKO ABERRI EGUNA, ATZERATUA ETA IZENA ALDATUA, BAINA ARRAKASTATSUA



1935ean Iruñeko Aberri Eguna Gobernazio Ministerioak debekatu zuenez, haren ordezkari Euzkadi Eguna ospatu zuten, atzeratuta. Ekainaren 29an, Jai Alai pilotalekuan, Eusko Abesbatzaren emanaldia izan zen, eta Gayarre antzokian 'Amaya' opera, Guridiren beraren zuzendaritzapean. Biharamunean, zezen plazan, Javier Landaburu, Jose Antonio Agirre, Telesforo Monzon eta Manuel Irujok hitz egin zuten, eta arratsaldean dantza jaialdia izan zen. "Iruña, euskal abertzaletasunaren garaiaren lekuko", zioen, besteak beste, euskal prentsak ospakizunaz. Argazkiak Jose Luis Eskubi Ellakuria medikuak egin zituen ekainaren 30ean.



FUNTSA: ESKUBI FAMILIA (IRUÑEA)

Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua

